**IRITZIA: HEZKUNTZAREN KALITATE LEGEA /9**


# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2003ko martxoaren 14a • IV. urtea • 102. zenbakia • DOAN BANATZE




**BARRUAN, ZURE HERRIKO ALDIZKARIA**




**Goienka2a**
Tolosako Babarruna Elkartea Debagoieneko ekoizle bila dabil

**ALCILIA MARIA MARTINS**
*"Oso interesgarria iruditzen zait hemengo kooperatiben antolatzeko modua"* /7

**DEBAGOIENA**
Ostalaritzan beira batzeko kanpaina hasi du Mankomunitateak /4

**ASTEKO GAIA: ESKUALDE OSPITALEAN ZERBITZUAK HOBETZEN DIHARDUTE /2-3**

**DEBAGOIENA: MARTXOAK 13, 'EGUNKARIA'-REN ALDEKO ELKARTASUN EGUNA /5**

# Lanuzteak eta elkarretaratze jendetsuak 'Egunkaria'-ren alde

- *Bergaran 800 bat lagun elkartu ziren udaletxe aurrean*
- *Leintz Gatzagan ere egin zuten kale bilkura, aspaldiko partez*

Debagoieneko enpresa, denda, taberna, ikastetxe eta udaletxe ia gehienetan lanuztea egin zuten eguenean, *Egunkaria*-ren aldeko elkartasun egunean. Horrez gainera, elkarretaratze jendetsuak egin zituzten lantoki eta udaletxe aurrealdeetan eta Arrasateko biribiluneetan. Nabarmentzekoa da Bergarako San Martin plazan 800 bat lagun elkartu zirela eguerdian. Leintz Gatzagan ere egin zuten elkarretaratzea, aspaldiko partez. Iluntzean ere egin zituzten, herriz herri. Era berean, hainbat ikastetxetako neska-mutikoek ekimen ugari egin zituzten.












Herri guztietan egin zituzten elkarretaratzeak eguerdian: udaletxe eta enpresa aurrealdeetan eta biribiluneetan. GOIENKARIA



Ander Rodríguez.

**IRAKEKO GERRA**

## Arrasatear bat Irakera, giza ezkutu

Ander Rodríguez arrasatearra Irakera doa bihar, zapatua, hango herritarrei elkartasuna adieraztera, bakearen aldeko Euskal Herriko beste 21 lagunekin batera. Komite Internazionalistek antolatu dituzte brigadok. Astebete emango du han, eta Bagdad eta Basora bisitatuko ditu. /5

**OÑATI**

## Chinchurretako langileek amaitu dute greba

Enpresa batzordeak eta Zuzendaritzak martitzenean akordioa egin ostean, lanera itzuli ziren eguenean Chinchurretako langileak. 64 egun eman dituzte greban. Hala, behin-behineko langileen eta lanpostu egonkorra duten langileen arteko soldatak erabat parekatu ez diren arren, gertu geratu dira, sindikatuen esanetan.










DEBAGOIENA/4-5 • HERRIZ HERRI/6 • IRITZIA/8-9 • KIROLA/10-11 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • BERRI-ZAKUA/19 • ZERBITZUAK/20 • DENBORA-PASA/21

# Ospitalera joan-e laster bukatuko

## ■ Hiru egunean egiten zena, laster, bakarrean ■ Goi mailako eskaner bat ekarri dute ■ Urologia kontsulta, ibarretik mugitu barik




Eskualdeko Ospitalearen helburuetako bat, aurtengo, atenditutako gaixoen %50 bereizmen handiko kontsultatik pasa izana da.

LEIRE KORTABARRIA

Debagoieneko ekualde ospitaleak zerbitzua berritzeko eta hobetzeko metodo berritzaile bat jarriko du abian hemendik gutxira: bereizmen handiko kontsulta da. Horren bidez, gaixoen bizi kalitatea hobetuko da.

Hori ez da, baina, ibarreko ospitaleak bere eraberritzeari ekiteko emango duen pauso bakarra. Teknologia berriak txertatzen hasia da, punta-puntako eskaner batekin; hau laster izango da erabiltzeko moduan.

Bestalde, ospitalearen asmoa da urologia kontsulta lehen bailehen abian jartzea, ibarrekooi Gasteizera joan behar izatea galarazteko.

**GUZTIA EGUN BAKARREAN**

Bereizmen handiko kontsultak orain arte ospitaleko lana ulertzeko modua aldatuko du. Ospitalearen helburua da, Jose Luis Angulo gerenteak dioskunez, "gaixoari zerbitzurik onena eskaintzea. Horretarako, itxoitedenbora laburtu nahi diogu. Alde batetik, lehen kontsulta egiten denetik mediku-probak egiten dituenera arte; hortik, diagnosia egiten zaionera arte... eta, bestetik, ospitale edo anbulatorioetara ahalik eta bidaia gutxien egin ditzalaitxoite-denborak laburtzea eta gaixoaren bizi kalitatea hobetzea. Kontsultak, frogak... egiten ematen den denborak eragina du gaixoaren familia eta lan bizitzan eta aisian. Hori saihestu nahi da".

Lehen kontsulta egin eta diagnosia izan arte doan prozesua goiz edo arratsalde bakarrean egin ahal izango da. Honek beste abantaila bat ere izango du: beti mediku berberak atendituko du pertsona hori. Era berean, bereizmen handiko kontsulta gaixoaren aukeran izango da; kontsulta mota tradizionala ere aukeratu ahal izango du.

**PUNTA-PUNTAKO ESKANERRA**

Bigarren berrikuntza garrantzitsu bat eskaner berriaren instalakuntza izango da. Lanak otsailean hasi ziren, baina kontuan hartu behar da zaharra kendu, berria ipini, eta langileei erabilpen ikastaroak eman behar zaizkiela. Horrekin guztiarekin, apiril inguruan izango da funtzionamenduan eskaner berria.

Ana Quinteiro diagnosi unitateko arduradunak azaldu dizkigu aparailu berriaren abantailak: "Oso aurreratua da, azken belaunaldikoa. Aurrekoak baino askoz ere sentsibilitate eta zehaztasun handiagoak ditu lesioak antzemateko orduan, eta azkarragoa, ikerketak egiteko orduan". Horrek esan gura du, besteak beste, gaur egun eskanerrean azterketa egiteko dagoen itxoite-zerrenda luzea dezente laburtuko dela.

Bestalde, lesioa zelakoa den eta zenbat organori eragiten dien hobeto ikusi ahal izango dute medikuek, eta diagnosia denbora laburragoan egin. Hau oso baliagarri izango da, batez ere, patologia oso larria denean, edo gaixoak zauri asko dituenean, eta premiazko diagnosia ezinbestekoa denean.

**TELERERRADIOLOGIA**

Baina General Electric etxeko eskaner berri sofistikatuak dakartzan berritasunak askoz urrutiago doaz. Izan ere, teknologia berriak aplikatzeko aukera eskaintzen du eskaner horrek, hain zuzen ere, telerradiologia eta endoskopia birtuala.

Telererradiologiari esker, eskanerrean lortutako irudiak urrutira bidali ahal izango dira, adibidez, beste ospitaleren batera, bigarren iritzi bat eskatzeko; edo erradiologoen etxeetara. Horrek ekarriko du, denborarekin, mediku bakoitzak bere gaixoen erradiografiak edo irudiak bere ordenagailuan eduki ahal izatea, kontsultan edo etxean.

Oraingoz, teknologia hori premiazko kasuetan bakarrik erabiliko dela diosku Quinteiro doktoreak. Hala ere, teknologia berriak gero eta gehiago ari dira sartzen ospitalean ere, eta digitalizazioa dela "azken helburua", diote Eskualdeko Ospitaleko arduradunek.

*Bereizmen handiko kontsultak orain arte lan egiteko modua aldatuko du ospitalean*

*Eskaner berria dute ospitalean, eta aurrekoa baino askoz zehatzago eta azkarragoa da*

*Ospitalearen azken helburua teknologia berriak bere zerbitzuan txertatzea izango da*

# etorria da



LEIRE KORTABARRIA

**JOSE LUIS ANGULO** / DEBAGOIENEKO OSPITALEKO GERENTEA

## *"Gaixoaren itxarote-denbora laburtzea da gure helburua"*

**Debagoieneko ospitaleak helburu handiak ditu aurtengo, eta arduradunak gogoz dabiltza honezkero horietan lanean. Jose Luis Angulo kudeatzaileak eman dizkigu azalpen gehiago.**



**Proiektuetariko bat bereizmen handiko kontsulta da...**

Gaixo batek medikuaren kontsultara joan, horren osteko frogak egin eta berriro kontsultara itzultzeko erabiltzen duen denbora asko labur daiteke, eta hori lortu nahi dugu. Hiru egunetan egiten zena egun bakarrean egiteko aukera emango diegu gaixoei. Asmoa da kontsulta, diagnosi probak eta tratamendua egun berean eskaintzea. Azken baten, Osakidetzaren helburua da gaixoaren gogobetetasuna hobetzea.

**Zein denbora epe uste duzue beharko duela pertsona batek prozesu hori guztia betetzeko?**

Ospitalearen aurreikuspenen arabera, gaixoak ez luke hiru ordutik gora itxoin behar izango, proba osagarri bat eta bigarren kontsulta bat behar dituenean. Gure helburua da itxoite-denbora laburtzea, bai, alde batetik, lehen txanda hartu eta behin betiko diagnosia jasotzen duen arte, baita, bestetik, osasun zentroetara egin behar dituen bidaietan ematen duen denbora aldetik.

**Beste inon egiten dute lan kontsulta mota honekin?**

Bai. Jaen-en, modu horretan bakarrik lan egiten duen zentro bat dago. Bestetik, Osakidetzak Galdakaoko eta Debagoieneko ospitaleetan ezarri du, oraingoz, baina asmoa da sistema hau zentro guztietan ezartzen joatea. Hortaz, Debagoieneko ospitalea EAEko aitzindarien artean dago.

**Sistema horrek zein eragin izango du langileongan?**

> *"Gaixoak ez luke hiru ordutik gora itxoin beharko probak egin ondoren"*

> *"Urte bukaerarako, gaixoen %50 bereizmen handiko kontsulta bidez atendituko dugu"*

Jakina, berrantolaketa eskatzen digu. Batik bat, erradiologia, laborategi eta kanpo-kontsulten guneetako langileen berrantolaketa. Lehen aldaketa garrantzitsua izango da lehen kontsulta batera doazen gaixo guztiekin goizeko lehen orduan egin beharko dituztela hitzorduak, eta behin gaixoak kontsulta hori pasa duenean, beharrezko baldin bada, probak egitera joango dela. Hori dela-eta, ospitaleko pertsonal guztiak lehentasuna eman beharko dio gaixo horren eskakizunari. Lan metodologia berri honek gaixoa du ardatz moduan, eta bere konfiantza eta gogobetetasuna igo nahi dira. Horretarako, langile guztion inplikazioa behar da.

**Aurtengo, aurreikuspenik baduzue, bereizmen handiko kontsultari dagokionez?**

Bai. Guk nahiko genuke, urte bukaerarako, Debagoieneko ospitaleak atenditutako gaixoen %50 bereizmen handiko kontsultatik pasatu izana. Era berean, asmoa da jasotako arreta oso ona edo bikaina kontsideratu dutenak %80 baino gehiago izatea.

**Bereizmen handiko kontsultaz gain, beste berritasun batzuk ere sartu dituzue: eskaner berria, esaterako. Horrek telererradiologia deritzona ekarri ahal izango luke... Digitalizazioa eta teknologia berriak, gero eta garrantzitsuago?**

Eskaner berriak zaharrak ez zituen hainbat aukera eskaintzen ditu, teknologia berriei dagokienean. Adibidez, endoskopia birtuala egiteko aukera ematen du: teknologia horren bidez, ez da esploraziorako gaixoaren gorputza inbaditu behar. Bestalde, digitalizazioa ere erabil dezakegu. Zentzu horretan urratsak ematen gabiltza, adibidez, erosi dugun ekografo berriarekin.

**Urologia kontsultaz ere asko hitz egiten ari da...**

Debagoienean, ez dago urologia zerbitzurik, eta horrek debagoiendarroi trabak dakarzkigu, hain zuzen ere, Gasteizko ospitaleetara joan beharra izaten dutelako ibarrekoek. Gasteizko Santiago ospitaleko urologia zerbitzuarekin ikerketa bat egin dugu, eta Osakidetzak onar dezan itxaroten gaude, Debagoienean zerbitzu hori eskaini ahal izateko.

JAENGO OSPITALE BAT, KASU BAKARRA

### 48 orduan laburtu dute Jaengo zentro baten gaixoen batez besteko itxoite-denbora

**Bereizmen handiko kontsulta sistema berria da Euskal Herrian, baina Jaengo Alto Guadalquivir ospitalean ondo ezagutzen dituzte metodo horren onurak, eta euren esperientzian oinarritu da Osakidetza. Alto Guadalquivir oso osasun zentro aurrerakoia da, teknologia berrienekin hornituta: orain Debagoienean bezala, han telerradiologia sistemarekin egiten dute lan, beste aurrerapen batzuen artean. Kontua da, ospitale aitzindari horretan emaitza bikainak lortu dituztela bereizmen handiko kontsultaren sistemarekin lan egiten: adibidez, kontsulten %65 egun bakarrean burutzen direla bere hiru fasetan: lehen kontsulta, probak eta diagnosia, tratamendu hasierarekin, behar balitz. Azken urtean, 80.000 gaixotik gora atenditu dituzte sistema horrekin, eta, ikerketen arabera, 48 ordutan laburtu da itxoite-denbora.**

PUNTA-PUNTAKO TEKNOLOGIA

### X izpien eta zuntz optikoaren eragozpenak saihestea ahalbidetzen dituzten teknikak

**Eskualdeko Ospitaleko eskaner berriak, hainbat aukera berriren artean, TEP teknologia du.Teknologia mota hori Miamiko Baptist Ospitalean (AEB) erabili zen lehenengo aldiz, eta irudien bitarteko diagnosia lortzeko teknologia garrantzitsuenetariko bat da, gaur egun. TEP teknologia, izatez, tomografia mota bat da. Tomografia egiteko aparailu tradizionalek X izpiak erabiltzen dituzte gaixoaren gorputza miatzeko; TEP teknologiak, berriz, positroiak erabiltzen ditu, eta askoz miaketa zehatzagoa lortzen du.**

**Bestalde, eskaner berriari esker, endoskopia birtuala egiteko aukera izango da. Horrek esan nahi du gaixoari gorputz barneko esplorazioa egin ahal izango zaiola, betiko tekniken trabarik gabe: besteak beste, ez zaio zuntz optikorik edo kateterrik sartu behar izango.**

URBANISMO LANAK

### Aparkalekua kentzeak eragina izan du ospitaleko langile eta erabiltzaileengan

**Debagoieneko ospitalea albiste izan da, ez bakarrik abian jartzen ari den berrikuntzengatik, baita inguruan egiten ari diren lanengatik ere.**

**Adibidez, ospitale eta anbulatorio inguruko aparkalekua kendu egin zuten otsail bukaeran, urbanizazio lanak egite aldera. Udalak anbulatorio atze aldean egokitu zuen behin-behineko beste aparkaleku bat. Horrek guztiak arazoak sortu zituen ospitale eta anbulatorioko langileekin, izan ere, aparkaleku berria ez zen egokia, euren ustez. Otsail bukaeran, ospitaleko eta anbulatorioko langile komiteak idatzi bat aurkeztu zion Udalari, konponbide eske. Aparkaleku falta arazo bihurtu da, ez bakarrik langileendako, baizik eta baita egunero ospitalera joan behar duten gaixoendako ere. Jaurlaritzak inguru hartan lurpeko aparkaleku bat eraikitzeko konpromisoa ere badauka.**



GOIO ARANA

Kanpainaren berri emateko eskuorri batzuk banatu dituzte. Helburua da kaleko iglu berdeetan beira gehiago sartzea.

# Taberna eta jatetxeetan beira gehiago birziklatzeko kanpaina hasi dute

*Zerbitzua hobetze aldera, erraztasunak emango dizkiete tabernariei*

ENEKO AZKARATE

**Ibarreko tabernetan eta jatetxeetan erabiltzen duten beira gehiago birziklatzeko kanpaina jarri du abian Debagoieneko Udalen Elkarteak. Horretarako, martxoan barrena teknikari bat establezimenduetara joango da, eta ostalaritzakoen iritzia jasoko du.**

Beirazko ontziki-hondakinen %44 taberna eta jatetxeetan sortzen dira. Horregatik, ontzi horiek batu eta birziklatzeko kanpaina berezia jarri du abian Mankomunitateak. Martxoan barrena egingo dute kanpaina hori, *Hemen beira birziklatzen dugu* izenburupean.

Helburu nagusia da aparte batutako beirazko ontziki kopurua gehitzea, eta gero birziklatu eta ontzi berriak egitea. Horretarako, ostalaritzako establezimenduei gurpildun ontzi bat eskainiko diete, beirazko hondakinak errazago batu eta kalean jarrita dauden iglu berdeetara garraiatzeko. Gainera, taberna eta jatetxeetakoei giltza bat emango diete igluetan aho berezi bat erabili ahal izateko. Aho hori ohikoa baino zabalagoa eta, hortaz, erabilgarriagoa.

**AGIRI BAT IZENPETU**

Abantaila horietaz baliatu nahi duten ostalaritzako establezimenduek agiri bat izenpetu beharko dute, eta sortzen dituzten beirazko hondakinak berezi eta iglu berdeetara eroatera konprometituko dira. Konpromiso horren adierazgarri, sistemara atxikitako establezimenduei identifikaziorako pegatina bat emango diete, lokaleko atean jartzeko, nahi badute.

**GALDEKETA ERE BAI**

Kanpaina lokalez lokal egingo da eskualdeko taberna eta jatetxeetan; baita dastaleku, hotel, ostatu eta pubetan ere. Gainera, Mankomunitateko tekniko batek inkesta egingo die ostalaritzan dihardutenei, egon daitezkeen beste arazo batzuk detektatu eta beiraren bilketa zerbitzuaren funtzionamendua hobetze aldera.

> "Gurpildun ontzi bat eskainiko diete ostalaritzako establezimenduei, beira garraiatzeko"

**ASKO BIRZIKLATZEN DUGU**

Debagoienean aparte batzen den beiraren indizeak handiak dira. Iaz, esaterako, Debagoieneko Mankomunitateak 1.676 tona beira batu zituen iglu berdeetan, hau da, 26,8 kilo biztanleko eta urteko. Horrek esan nahi du Espainian, Gipuzkoan eta Autonomia Erkidegoan baino gehiago birziklatzen dugula hemen: Espainian 8,6 kilo beira birziklatzen dute biztanleko eta urteko; Gipuzkoan, 22,2 kilo; eta Autonomia Erkidegoan, 17,5 kilo.

**ETXEKO TRASTE ZAHARRAK**

Bestalde, Debagoieneko Mankomunitateak gogorarazi nahi die debagoiendarrei etxeko traste zaharrak kalera ateratzeko herrietan zehaztuta dauden egun bereziak errespeta ditzatela.

## DEBAGOIENEAN LABUR

### Autodeterminaziorako Bilguneak Bilbon egingo dituen ekitaldietarako autobusak

Bihar, zapatua, Bilboko Erakustazokan egingo diren Autodeterminazioaren Aldeko Topaketetara joateko autobusak antolatu dituzte herrietako batzordeek. Hauteskundeetarako eskaintza aurkeztuko du AuB taldeak Bilbon. Horrez gain, manifestazioa egingo dute, 17:00etan, eta gero, ekitaldi politikoa eta jaialdia. /E.A.

### MCC taldeko LKS Ingeniaritza %13,6 hazi zen iaz, eta 192 proiektutan jardun zuen

LKS Ingeniaritzari ondo joan zitzaion iazko urtea: %13,6 hazi zen. Talde osoak aurreko urtean baino %7,3 gehiago fakturatu zuen, eta 192 proiektutan hartu zuen parte; horietatik, 11 merkataritza-guneetan eta zortzi zentro logistikotan. 292 langile izatera heldu zen. Oro har, negozio guztietan hazi zen LKS, eta urteko bigarren sei hilabetekoan lehenengoan baino hobeto joan zitzaizkion gauzak. /E.A.

### Aretxabaletako PSE-EEko zinegotziaren aurkako pintaketak salatu dituzte

Aretxabaletako PSE-EEko zinegotzi Iñaki Pierruguesen aurka azken egunotan Aretxabaletako kaleetan agertutako pintaketak salatu ditu PSE-EEko Gipuzkoako exekutibak. Gainera, Aretxabaletako alkateari egotzi dizkio etorkizunean zinegotzi sozialistaren aurka gerta daitezkeenak. *Ordainduko duzu* eta antzeko pintaketak agertu dira. Eguaztenerako dagoeneko garbituta zeuden pintaketok. /E.A.



### Artzain Mundua sortu dute Arantzazun

Eguaztenean egin zuten ikasturte amaiera ekitaldia Arantzazuko Artzain Eskolan, Gomiztegi baserrian. Aurtengoa seigarren urtea da ikastaroa antolatzen dutena. 19 lagun ibili dira ikastaroan, sei hilabetez, joan den irailetik martxora bitartean. Artaldearen erabilera, elikadura, gaixotasunak, genetika, aukeraketak, gaztagintza, salmentak... Horrelako gaiak izan dituzte ikasgai. Bestalde, Artzain Mundua elkartearen sorreraren berri eman zuten. Arantzazun izango du egoitza eta dokumentazio zentroa eta museo etnografikoa ipiniko dituzte hantxe. /E.A.

M
MEMESA SL
Industri hornidurak
943 71 24 25



Kataide Industrialdea 14 Musakola • **ARRASATE** • Tel.: 943 79 23 83 Faxa: 943 77 04 45
Mallabiena auzoa 6 • **IURRETA** • Bizkaia • Tel.: 94 681 76 19

## ELKARRIZKETA/IRAKEKO GERRA

**ANDER RODRÍGUEZ**/INTERNAZIONALISTA

# *“Irakiarrei elkartasuna adieraztera goaz Irakera”*

E.A.

**Ander Rodríguez arrasatearra (20 urte) Irakera doa bihar, zapatua, hango herritarrei elkartasuna adieraztera, bakearen aldeko Euskal Herriko beste 21 lagunekin batera. Komite Internazionalistak taldeak antolatu ditu brigadok. Astebete emango du Bagdad eta Basora bisitatzen.**



**Giza ezkutu bezala zoazela esatea zuzena da?**

Bakearen aldeko brigadakoak gara gu. Gure helburua da Irakeko herriari elkartasuna adieraztea. Helburu bi ditu gure bidaiak: batetik, Iraken bizi den egoera salatzea, milioi eta erdi lagun hil direlako azken 12 urteotan, horietatik 200.000 umeak; bestetik, irakiarren aurka Ameriketako Estatu Batuen erasoa salatu gura dugu.

**Zer egingo duzue han?**

Hainbat talderekin elkartuko gara; Irakeko atzerri-ministro Tarek Aziz-ekin elkartuko gara, baita irakiar langileen eta emakumeen batzordeekin ere. Horrez gainera, Bagdadeko eta Basorako auzoak bisitatu gura ditugu, hango errealitatea hobeto ezagutzeko, eta ez Irakeko gobernuak erakutsi gura digun errealitatea. Bestalde, bonben erasoa jaso dezaketen hainbat gunetan egon gura dugu.

**Beldurrik bai?**

Arriskua egon badago, hori ezin da ukatu, batez ere, erasoa iragarritako egunetan izaten bada, 17tik aurrera. Hala ere, uste dugu amerikarrek aintzat hartuko dutela Bagdaden dauden europarren egoera. Izan ere, mundu osoko brigadak daude Iraken une honetan.

## ‘EGUNKARIA’-REN ALDEKO ELKARTASUN EGUNA

# Debagoienak bat egin zuen eguenean ‘Euskaldunon Egunkaria’-ren alde

*Lanuzteak eta elkarretaratze jendetsuak izan dira ibarreko herrietan*

GOIENKARIA

**Erabateko erantzuna izan zuen atzorako, eguenerako, deitutako *Egunkaria*-ren aldeko elkartasun egunak. Udaletan, ikastetxeetan, enpresetan eta ostalaritzan ia erabatekoa izan zen lanuztea. Bestalde, elkarretaratze jendetsuak egin zituzten herriz herri.**

Udaletxe eta lantegi aurrealdeetan eta Arrasateko biribiluneetan egin zituzten elkarretaratzeak eguerdian. Eta iluntzean, udaletxe aurrealdeetan. Bestalde, ikastetxeetan hainbat ekimen egin zituzten: Bergarako Aranzadi eta Arizmendi ikastoletako neska-mutikoek, esaterako, egunkariak egin zituzten.

**ORDUBETEKO SOLDATA**

Goienako langileek ordubeteko soldataren saria *Egunkaria*-ren alde ematea erabaki zuten. Antzeko erabakiak hartu zituzten ibarreko hainbat udaletako langileek ere, Bergarakoek eta Eskoriatzakoek, esaterako; Aretxabaleta eta Antzuolakoek lanuztean galdutako ordua berreskuratu eta diru hori *Egunkaria*-ri ematea erabaki zuten; Elgeta, Oñati eta Arrasatekoek lanuztea egin zuten.







GOIENKARIA

Bergarako plazan 800 lagun elkartu ziren; Eskoriatzako MUn ere lanuztea egin zuten.

# Gerran fusilatutakoen aldeko ekimenak bultzatuko dituzte

*Besteak beste, monolito bat ipiniko dute haien omenez*

E.A.

**36ko gerran fusilatu zituzten debagoiendarren senitarteko eta lagunen batzordeak mozioak aurkeztuko ditu herriz herri; horrez gain, erakusketak eta omenaldia antolatuko ditu.**

Mozioa ondorengo asteotan aurkeztuko dute Debagoieneko udal guztietan, *1936ko kolpe militarraren ondorioz, fusilaturiko herritarren aitortza eta ordain moralaren alde* izenburupean. Bestalde, apirilean, maiatzean eta ekainean, erakusketa egingo dute ibarreko herrietan –Eskoriatzan hasiko da, apirilaren 14an– eta ekainaren 8an omenaldia egingo diete fusilatuei, Arrasaten. Horrez gainera, fusilatu guztien izenak jasoko dituen monolito bat ipiniko dute Arrasaten. *Gerra zibilean fusilatu zituztenen memoria historikoa berreskuratzeko* leloa izango du.

41 lagunek osatzen dute Debagoieneko fusilatuen senitarteko eta lagunen batzordea, haien senideak gehienak. “Gure nahia gertakari haiek ez errepikatzea da, ez inon, ez inoiz”, diote.

## LABUR

### Goienako langileen ordubeteko soldata ‘Egunkaria’-ren alde

Atzo ibarrean antolatu ziren elkarretaratzeetan parte hartzeaz gainera, ordubeteko soldata eman genuen Goienako langileok *Egunkaria*-ren alde. Jasotako dirua Topaguneak *Egunkaria*-ko langileei laguntzeko zabaldu duen kontuaren bitartez bideratuko da.

### Kulturagileen eta kirolarien babesa jaso du ‘Egunkaria’-k

Astean barrena kulturako 200 sortzaileren eta kirolari ugariren babesa jaso dute *Egunkaria*-ko langileek, tartean 17 debagoiendarrena. Besteak beste, Ruper Ordorika, Mikel Laskurain, Edu Muruamendiaraz, Jokin Etxaniz eta Aitor Zabaleta izan ziren ekitaldietan.

### Debagoienean 1.169 harpidedun egitea da helburua

*Egunkaria*-ren aldeko herrietako batzordeek ekin diote harpidedunak egiteko kanpainari. Helburua da dauden harpidedunez gain ibarrean 1.169 harpidedun gehiago egitea: Arrasaten, 460; Bergaran, 327; Oñatin, 250; Aretxabaletan: 100, Antzuolan, 22; eta Elgetan, 10.

SAMBA ETA AFROKUBATAR ERRITMOAK

Ikastaroak: Martxoaren 17an, 24an eta 31n
Apirilaren 7an, 14an eta 28an
Maiatzaren 5ean.
Irakaslea: Manuel Jiménez "Ballena"
Non: Arrasateko Gazteluondo Aretoan
Ordutegia: Arratsaldeko 18:00etatik 20:30etara
Izena ematea: Bertan



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
Gazte Saila

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2003ko martxoaren 14a

ANTZUOLA

## Anbulatorioan hainbat berrikuntza egiten dihardute

Orain dela hilabete batzuk anbulatoriorako eskailera berriak egin zituzten. Orain, berriz, hurrengo fase baten, beste hainbat berrikuntza lani ekin diete. Aurreko aste amaiera aldera hasi ziren lan horiekin.

Alde batetik, anbulatoriorako igogailua jartzen dihardute; beste alde batetik, komunak berrituko dituzte, baita fatxada txukundu ere.

Igogailua jarrita eta komun berriekin, irisgarritasun planari jarraituz, minusbaliatuei erraztasunak emango dizkiete. /A.I.

ARAMAIO

## Aurkeztu dute herriko talde ezkertiar berria: Hamalau

Ideia guztien errespetuaren alde, autodeterminazio eskubidearen alde eta euskararen defentsaren alde egiteko taldea sortu da. Hamalau izena ipini diote, Aramaioko 14 auzoak aintzat hartu dituelako. Domekan aurkeztu zuten. Antolatzaileen arabera, ezkertiar izatea ezinbestekoa da taldeak defenditzen dituen lau puntuok onartzeko. Horrela, ideia horiekin bat egiten duten herritarrei taldean parte hartzeko dei egin zieten. Aurkezpen ekitaldiaren ostean, taldeari atxikimendua eman zioten herritar dezentek. /U.M.

ELGETA

## Martxoaren 23an izango den Zuhaitz Egunean 25 zuhaitz landatuko dituzte

Dagoeneko antolatu du Baserritarren batzordeak aurtengo Zuhaitz Eguna. Martxoaren 23an, Eguarbitzan Udalak duen lursailean sartuko dituzte Diputazioak emandako astigarrak eta lizarrak. Aurreko urteetan moduan, 25 zuhaitz inguru emango ditu Diputazioak egun horretarako.

San Roke ostean eroritako pagoak ordezkatzeko asmoa ere azaldu du Baserritarren batzordeak. Bertan pago berriak sartzeko asmoa dute. Irteera 09:00etan izango da. /O.E.




MONIKA BELASTEGI

BERGARA

## Atzoz geroztik, zabalik dago herriko lehen beilatokia. Euskalduna Hileta Zerbitzuak ireki du Amillaga kaleko egoitzan, eta astean zazpi egunez egongo da zabalik

Atzo (eguena) goizean inauguratu zuten, eta Euskalduna Hileta Zerbitzuak enpresako arduradun Endika Azpirotzen esanetan, inauguratu zen unetik bertatik zabalik dago beilatoki zerbitzua. Amillaga kaleko 39. zenbakian dago. Beilatokiak harreragunea du, hildakoak beilatzeko bi gela, komunak eta hileta-kutxak erakusteko aretoa. Hildakoa beilatzeko bi gelei dagokienez, familiakoak egoteko gunea dago, hildakoarengandik pareta txiki batek banatuta. Bestalde, zerbitzua astelehenetik domekara egongo da zabalik, 09:00etatik 22:00etara, eta prezioari dagokionez, Euskalduna Hileta Zerbitzuko bazkide direnek 200 euro ordainduko dituzte zerbitzuarengatik eta kanpokoek, berriz, 300 euro. /M.B.

ARRASATE

# 'Egunkaria'-ren aldeko 460 harpidetza lortu gura dituzte Arrasaten

Egunkaria Aurrera izeneko herri batzordea sortu da. Izenak dioen moduan, *Egunkaria*-ren alde egitea da taldearen helburua. Eta horretarako Kontseiluak markatutako lan-ildoen arabera egingo du lan.

Horrela, harpidedunak egiteko kanpaina abiarazikо dute. Guztira, 460 harpide egin gura dituzte Arrasaten. Horrekin batera, dirua batuko dute. Era berean, mobilizazioak antolatuko dituzte.

**PARTE HARTZEKO DEIA**

Hogeita hamar lagun baino gehiago elkartu ziren herri batzordean. Edozelan ere, parte hartu gura dutenendako ateak zabalik daudela esan zuten. /U.M.



U.M.

**Herri batzordea zabalik dago parte hartu gura duenarendako.**

OÑATI

# Arranok 20 urte beteko dituela eta, hainbat ekitaldi antolatu dituzte

Aurten beteko dituzte 20 urte Arrano tabernak eta elkarteak. Urteurren hori ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte.

Aurreko astean zabaldu zuten elkartean izandako kontzertuetan ateratako argazkien erakusketa, eta datorren martxoaren 17ra arte, astelehena, egongo da zabalik.

Martxoaren 28an, berriz, beste erakusketa bat jarriko dute, Marokokoren gaineko argazkiekin. Erakusketa gehiago ere antolatu dituzte: apirilaren 6an Korrika Oñatitik pasatzen dela eta, egun horretan ateratako argazkiak jarriko dituzte ikusgai Arranon, apirilaren 8tik 14ra.

Apirilaren 24an, azkenik, Indiako argazkien gaineko erakusketa jarriko dute, eta maiatzaren 6ra arte egongo dira argazkiok ikusgai.

Baina, erakusketez gain, bestelako ekitaldirik ere antolatu dute Arranoren 20 urteak ospatzeko. Apirilaren 11n, esaterako, Ixuketan gazte taldeak antolatzen duen *Oñati ezauketan* lehiaketako saioa Arrano elkartean jokatuko dute. Bost gaztetxoz osatutako sei talde lehiatuko dira hantxe elkarren kontra.

Bestalde, hogei urte hauetan Arrano tabernan lanean ibilitako zerbitzari guztiendako afaria antolatzen dihardute.

Aurrerago, baina, ekitaldi eta ospakizun gehiago egiteko asmoa erakutsi dute Arrano elkarteko arduradunek eta urteurreneko ospakizunen antolatzaileek. /A.I.

### Zertzelada

**Martxoaren 17ra arte egongo dira ikusgai hogei urte hauetan Arrano elkartean eta tabernan egindako kontzertuetako argazkiak.**

ARETXABALETA

## Udalak Poxpolin Gazte izeneko gazte-lekua irekiko du laster

Udalak 12 eta 16 urte bitarteko gazteendako gaztelekua irekiko du hil honen amaieran. Poxpolin Gazte izena izango du eta garai baten Santa Kurtz kalean zegoen ludotekan jarriko dute. Udalaren helburua da adin horretako gazteei lokal bat eskaintzea aisialdiaz gozatzeko.

Gazte-lekua egubakoitzetik domekara bitartean, jaiegunetan eta jai bezperetan irekiko dute, arratsaldez. Gaztetxoak ez dira bakarrik egongo. Udalak Poxpolin Gazterako arduraduna kontratatuko du datozen egunotan. /A.L

ESKORIATZA

## EAJ eta EA alderdiak batera joango dira udal hauteskundeetan

Hauteskunde usaina hartzen hasita gaude eta herrietako alderdiak ere dagoeneko hasi dira lanean. Horrela, bada, Eskoriatzako EAJ eta EA alderdiek hainbat batzar egin dituzte azken asteotan, eta maiatzeko udal hauteskundeetan batera aurkeztea erabaki dute. Gipuzkoako herri gehientsuenetan moduan, herriaren alde lan egiteko erabakirik egokiena hartu dutelakoan daude. Oraindik zerrendaren inguruan berba egiteko goiz den arren, alkategaia EAkoa izango da, azken legealdian moduan. /M.A.

LEINTZ GATZAGA

## Administrari laguntzaile postua betetzeko lan-poltsa atera dute

Udalbatzak otsailaren 7an egindako bilkuran erabaki zuen administrari laguntzaile postua betetzeko lan poltsa ateratzea. Interesatuok hilabeteko epean eman beharko dute izena udaletxean.

**UR DEPOSITUA GARBITU**

Datorren astelehenean, Gipuzkoako ur partzuergoko teknikariek herriko ur depositua garbituko dute. Urtean behin garbitzen dute depositua. Hortaz, hori dela eta, astelehenean, 09:00etatik 12:00etara ura moztu egingo dute. /A.G.

Ibarreko kooperatibek eta gobernuz kanpoko erakundeek bultzatutako fundazioa da Mundukide. Aurten laugarren aldiz antolatu du fundazio honek Komunitate Garapenerako Esperientzien Truke-programa. Hamalau lagun etorri dira Afrika eta Amerikako hainbat herrialdetik hona. Hemengo esperientzia kooperatiboa ezagutu eta haien herrialdetakoaren berri eman. Horixe da truke-programaren helburua. Ginea Bissauko Alcilia Maria Martins da gurera etorri diren 14 lagunetako bat. Champagnat Fundazioaren bidez etorri da. Harekin egin dugu berba.

ENEKO AZKARATE



ENEKO AZKARATE

# *Alcilia Maria Martins*

CHAMPAGNAT FUNDAZIOKOA (GINEA BISSAU)

## "Oso interesgarria da hemengo kooperatiben antolatzeko modua, edo bazkideen parte-hartzea"

GINEA BISSAUKO KOOPERATIBAK

**"Ginea Bissauko kooperatiba gehienek porrot egin dute. Goitik sortutakoak ziren eta oso antolaketa hierarkikoa zuten. Langileek ez zuten erabakietan hartzeko aukera handirik"**

HEMENGO BIZIMODUA

**"Atentzioa eman dit ikusteak ia ez dagoela garraio publikorik. Jende guztia dabil harantz eta honantz nor bere autoan, eta horregatik da hain zaila aparkatzeko tokia aurkitzea"**

**Astebete daroazu, gutxi gorabehera, Debagoienean. Zelako inpresioa orain arte?**

Oso ona. Eskola teorikoak hartu ditugu; hainbat bisita egin ditugu kooperatibetara-eta; txango bat ere egin genuen asteburuan Bizkaira, hain justu Gernikara eta kostaldera; berbaldietan ere izan gara; hedabideekin ere bai. Oso giro atseginean igaro da dena. Esperientzia polita izan da orain arte, batez ere ezagupenen elkartrukea egiten ari garelako.

**Asko ikasten ari zara esperientzia honekin?**

Bai. Batez ere interesgarria iruditzen zaigu hemengo esperientzia kooperatiboa: hemengo enpresen antolatzeko modua, bazkideen parte hartzea… Gainera, ikusteak hemengo enpresa kooperatiboak oso ondo doazela, langileak ondo bizi direla, etorkizuna bermatuta dutela… eta, baita, hezkuntza arloari kooperatibek ematen dioten garrantzia.

**Kooperatiben gaineko beste iritzi bat zeneukan hemengoak ezagutu aurretik?**

Bai. Izan ere, nire herriko, Ginea Bissauko, kooperatiba gehienek porrot egin dute. Hamahiru bat ziren —gerran jardundakoek edo hauendako bultzatuak eta sortuak—, eta gaur egun bizpahiru baino ez dira geratzen. Goitik sortutako kooperatibak ziren eta antolaketa oso hierarkikoa, goitik beherakoa, zuten. Langileek ez zuten antolaketan, erabakietan, irabazietan parte hartzeko aukera handirik. Ez zeuden inplikatuta. Gainera, paternalismo apur bat ere antzematen zen kooperatiba haietan, hau da, langileek ez zuten nahikoa edo eman behar zutena ematen, goitik zetorrelako laguntza. Horregatik egin zuten porrot, nire ustez.

**Nolakoak ziren kooperatiba haiek?**

Gehienak nekazaritza kooperatibak eta baita arozgintzakoak, oinetakoenak, jostekoak… 50 bat lagunekoak, sei bat familiakoak-edo.

**Orain arte hemen ikusitakoagatik, oro har, zerk harritu zaitu gehien?**

Kooperatibei dagokienez, jendeak oso bere egiten dituela kooperatibak; parte hartzea handia dela; langileak oso inplikatuta daudela; maite dutela euren lantokia, euren proiektua. Uste dut hor dagoela Mondragoeko esperientzia kooperatiboaren arrakastaren giltza. Bestalde, atentzioa eman dit ia ez dudala garraio publikorik ikusten. Jende guztia dabil harantz eta honantz nor bere autoan, eta, gero, horregatik da hain zaila aparkatzeko tokia aurkitzea.

**Zu zeu Bissautik, Gineako hiriburutik, zatoz, ezta?**

Bai. 1.150.000 bat lagun bizi gara Ginea Bissau osoan eta hiriburuan, Bissaun, 250.000 bat. Dagoen industria apurra hiriburuan dago, baina ez dago ia industriarik. Garagardoa eta honen deribatuak egiteko lantegi bat badago, baina une honetan itxita dago. Bestalde, 70eko hamarkadako hasierako urteetan industria gune handi bat eraiki zuten, baina 80ko hamarkadako estatu kolpearen ondoren, han geratu zen, geldirik, eta oraindik ere itxita dago. Une honetan, eraikinen hondakinak baino ez dira geratzen.

**Hemengo esperientzia kooperatiboa ezagutzeaz gain, asteburuan irteerak-eta egin dituzuela esan duzu…**

Bai. Esan behar dut astean zehar ez daukagula astirik ia ezertarako, eskolak hartu, bisitak egin… horrelakoetan gabiltzalako batik bat. Bergaran egiten dugu lo, Mariaren Lagundian. Goizeko 8etan ateratzen gara Bergaratik, eta afaldu ere, Bergaran egiten dugu, 20:30ean. Asteburuan, baina, izan dugu hortik zehar ibiltzeko astirik. Esaterako, Gernika bisitatu dugu, hango arbola, Batzar Aretoa… oso interesgarria iruditu zait. Kostaldea ere ikusi dugu. Oso polita.

**Zer nolako lanak egiten dituzu zure herrian, Ginea Bissaun?**

Lehen, urtetan, Nekazaritza Ministerioan ibili nintzen lanean, baina urte batzuetatik hona, egitasmo berezi baten dihardut, hain justu, gerran jardundakoen birgizarteratze programa baten. Bakerako, errekontziliazio edo adiskidetze nazionalerako eta gizartearen berreraikitzerako sortu zen programa hau. Batik bat, borrokan aritutakoak —gure herriaren askapenerako gerran eta, batez ere, gerra zibilean jardundakoak— birgizarteratzea du helburu programak.

**Eta uste duzu hemen ikasten ari zarena baliagarri izango zaizula egitasmo horietarako eta beste batzuetarako?**

Asko ari naiz ikasten, oso interesgarria da dena, baina hemengo eredua han indarrean jartzea zail samarra dela iruditzen zait. Baina, bai, ideia batzuk hartzen ari naiz eta horiek seguru erabiliko ditudala. Garapenerako nekazarien elkartearen bitartez egingo da birgizarteratzea. Borrokan jardundakoen artean, bereziki, premia handiagoa dutenei lagunduko zaie programa honetan: soldadu gazteei, borrokan aritutakoen emazteei eta gerraren ondorioz zaurituta edo elbarri geratu zirenei. Ni neu talde horiekin ari naiz lanean.

**Champagnat fundazioaren izenean edo haren bitartez etorri zara hona. Berba egiguzu fundazio horren gainean.**

Ni ez naiz fundazio horretako kide eta ez nabil horretarako lanean, baina haren izenean etorri naiz Euskal Herrira, hark egindako beka deialdira aurkeztu eta ni aukeratu nindutelako. Ginea Bissauko elizak —Champagnat fundazioaren bidez— eta Lan Ministerioak bultzatu gura dute han kooperatibismoa edo garapen komunitarioa. Hortaz, hemen ikasitako guztia haien asmoen zerbitzura jarriko dut; txosten bat idatziko dut, hemen jazotakoaren berri emango duena.

**Truke-programa honek helburu bat baino gehiago dauka: batez ere hemengo esperientzia komunitarioa beste herrialde batzuetara zabaltzea, baina baita zuen esperientziaren berri izatea eta hainbat herrialdetatik etorri zaretenen arteko harremanak sendotzea. Zer moduz zure ikaskideekin?**

Oso ondo, oso harreman politak egiten ari gara eta oso aberasgarria da beste herri batzuetakoen esperientzia gertu gertutik ezagutzea. Alternatiben aniztasunak asko aberasten gaitu. Gainera, garatu bariko beste herrialde batzuetako esperientziak, akaso errazago erabili eta jar ditzakegu indarrean nire herrian.

**Hona etorri aurretik Euskal Herriko egoera sozio-politikoa, kultura, hizkuntza…, ezagutzen zenituen?**

Ez. Hona etortzeko beka eman zidatenean hasi nintzen interesatzen eta han eta hemen begiratzen. Gainera, Espainian eta Euskal Herrian sekula egoteke nintzen. Hau dena berria izan da niretako. Eta, bide batez, aukera hau aprobetxatu gurako nuke eskerrak emateko Mundukide fundazioari eta MUko Lanki taldeari hona etortzeko eman diguten aukerarengatik.

# Zabalik



JOXE LAZKANO

## Kaltea

**Pentsatu beharko genuke euskara errespetatu, zaindu eta bultzatzeko erantzukizuna dutela instituzioek eta alderdi politikoek. Alde batetik, oso garbi dago alderdi politiko batzuen jarrera, euskara baztertu egiten dute eta, gainera, ez dira lotsatzen. Baina, bestetik, oso garbi ez dagoena da Jaurlaritzako arduradunena. Arduradun abertzaleena.**

**Azken hauen jarrera aurrekoena baino tristeagoa dela iruditzen zait, zurikeriaren eredu perfektua, bi aurpegi dituen azpijoko gaiztoa.**

**Askori gogorrak eta onartezinak irudituko zaizkio goian aipatutakoak, baina gaur egun, helduen euskalduntzearen sektorea jasaten ari denak ez dauka izenik: bertako langileen lan baldintzak eta soldatak ez dira inoiz duinak izan, baina HABEren azken urteotako jarduna kontuan hartuta egoerak okerrera egin du; irakasleen profesionaltasuna ez da aintzat hartzen, hizkuntzaren didaktikan egindako ahaleginek ez dute ezertxo ere balio, dirulaguntzen murrizketak beldurgarriak dira... Luze joko luke gorabehera guztiak hemen azaltzeak.**

**Beste arlo askotan gertatzen den moduan, gai edo arazo bat ezagutzen ez dugunean ezinezkoa zaigu horri buruzko iritzia ematea, urrutikoa egiten zaigu, informaziorik gabe, ez dagoena, aipatzen ez dena, ez da existitzen. Eta hori da, hain zuzen ere, helduen euskalduntzeari gertatzen zaiona.**

**Ondorioz, idatzi honen bidez gure arduradun politiko abertzaleak salatu nahi ditut, EAJ bereziki, horrenbeste defendatzen duzuen eta Euskal Herriaren oinarri den euskarari egiten diozuen kalte eta iruzurrarengatik, eta sektoreko langileen duintasun eta bizi baldintzekin jokatzeagatik.**

# Gutunak

## Aita Menni dela-eta

Doltza Gonzalezi: Aita Menni ospitalea kritikatzeko orain dela aste batzuk GOIENKARIAn idatzitako gutunean zenion, "norbaitek gai honi buruzko komentariorik edo iritzirik bota nahiko balu, nire posta elektronikora bidali". Horixe bera egin nuen eta oraindik ez dut erantzunik jaso. Agian ez duzu posta ireki, edo arazoren bat egon da eta nire mezua galdu da. Horregatik, mezua irakurtzen duzula ziurtatu nahi dudanez zuk erabilitako bide berean azaltzea erabaki dut.

Aipatzen duzun ospitaleko psikogeriatria sailean egin dut lan hainbat urtetan, eta zorionez edo zoritxarrez, buruko gaixotasuna ezagutzeko aukera izan dut. Era berean, buruko gaixotasun horren zaintzak berarekin dakartzan gorabehera guztiak.

Pentsatzen dut zuk zeuk ere ezagutzen duzula buruko gaixotasuna eta horrek suposatzen duena. Pentsatu duzu horretan? Hau da, suposatzen duen horretan guztiorretan?

Aita Menniko geriatrikoan dauden aiton-amonak banatuta ikusten dituzula irakurtzen dut eta hala da. Baina, benetan uste duzu ia gordeta daudela? Hori dela banatuta egotearen helburua? Pentsatu duzu inoiz banaketa hori bertan dauden aitonamonen zainketari erantzun egokia emateko antolamendu kontua izan daitekeela?

Bestalde, aipatzen dituzun beste egoerak ("bat lurrera erortzeko zorian, bestea zikin...") apurtxo bat gordinegi deskribatzen dituzulakoan nago. Badirudi guztiak daudela horrela, eta hori ez da horrela, edo bai? Banaka horiek horrela egotea ez duzu uste buruko gaixotasunen ondorio dela?

Egia da uneoro aiton-amona horien gainean egonda egoera hobetu daitekeela. Argi dago bakoitzak zaintzaile bat izango balu egoera izugarri ona izango litzatekeela, baina jakin badakizu errealitatea ez dela hori. Errealitatea zuk badakizu zein den, bertara sarritan joan bazara behintzat.

Bukatzeko esan nahiko nizuke, niri inoiz ez didatela telebista ikustearren ordaindu; izan ere, lana gogor egin behar izan dut. Ez dakit zein izan den zure esperientzia edo zein egoera ikusi duzun (agian zure egoera konkretu horretan idatzi duzunak zentzua izango du), baina ez dut orokortze hori onartzen, min ematen dit. Lagun asko ditut bertan lanean eta zin dagizut telebista ikusi baino askoz gehiago egiten dutela.

Idatzi honekin ez dut zure aurkako jarrera bat azaldu nahi ez eta haserrerik azaleratu nahi. Idatzi honen helburua beste bat da. GOIENKARIAn irakurritakoaren hausnarketa bat da eta zu ere hausnarketa horretara bideratu nahi zintuzket. Egia da bertako aiton-amonen egoera hobetu daitekeela, baina ez bertako laguntzaileen gainean horrelakoak idazten. Agian zure kritika beste puntu batera begira jarri beharko zenuke.

NAGORE IÑURRATEGI
Bergara

## ¡Euskaltel, nos has tocado la fibra!

Badator, badator *e-debagoiena!* Orain urte bete, lelo hau zabaldu zen eskualde osoan.

Gatzagarrok pozik geunden; badator kablea! Gainera, gure herria proiektu berri horren aurkezpena egiteko aukeratua izan zen. A zer ohorea! Pozarekin batera, urduritasuna, batez ere, gure herriko alkate eta zinegotziena. Ez zetorkigun lan makala: hainbeste politiko, enpresa-gizon eta, horiek atzetik dakarten jende konpartsa guztiari harrera on bat ematea.

Horrelakoetan gertatzen den moduan, Sorginak taldeko emakumeei ere lantxo bat egokitu zitzaigun: hain zuzen ere, gure espezialitatea den taloak egitea.

Elkartu, eta hori guztia prestatzen hasi ginen: irinik onena Amezketako errotakoa; talogile trebeenak goizean goizetik prest; bertako txorixoak; gazta, euskal labelduna; Errioxako ardoa, noski... Amantal gerrikoak ere estreinatu genituen okasiorako; ospakizun horrek, hori guztia eta gehiago merezi zuelakoan geunden-eta.

Inuzente halakoak! Gatzagatar gizajoak! Ondo baino hobeto sakatu digute! Zuntz optikoa garestiegia da zuena bezalako herri txiki batean jartzeko. Talo ederrak egiten dituzue, jarraitu horrelaxe! Ulertuko duzuen moduan errentagarritasunak agintzen du gaurko munduan. Hala ere, ez galdu esperantza, etorriko da eguna zuendako ere.

Betiko kontuak eta betiko aurrekontuak. Jakin badakigu, herri eta hizkuntza txikiak erraz baztertzen direla eta, boterea dutenek, horien ahotsak isilarazi nahi izaten dituztela.

Txikiak izan arren, gutxi izan arren, duintasun osoz bete genuen egin beharra, herri txikietakoak betetzen dakigun bezala. "Zer eman hura hartu" dio euskal esaera zahar batek. Baina, gure honetan, hartutakoak ez du bueltarik izan.

Horregatik, sorginak garenok lau haizetara esan nahi dugu: *¡Euskaltel, no nos toques la fibra!*

SORGINAK EMAKUME TALDEA
Leintz Gatzaga

## Emakumeak, lehenak... gerraren ondorioak jasaten

Aurten, Emakumeen Nazioarteko Eguna gerra hotsen artean igaro zaigu. Horregatik, analisigile, politikari eta komunikabideek ahaztu ohi duten gerraren alderdi bat ekarri nahi dugu orri hauetara: gerrak emakumeengan dituen ondorioak, hain zuzen. Gaur egun, gatazka armatuen atzaparretan gerrara joateko erabakia hartzeko aukera gutxien dituztenak erortzen dira batik bat: biztanle zibilak eta, biztanle zibilen artean, egoerarik kaskarrenean dauden taldeak, besteak beste, emakumeak.

Gizon-emakumeek, lekuan lekuko kulturaren arabera, zeregin eta betebehar jakin batzuk dituzte euren gizarteetan. Ia kultura guztietan emakumezkoek gizonezkoek baino aukera gutxiago dituzte alor guztietan. Eta gatazkak muturrera heltzen direnean, gerra pizten denean alegia, emakumeen egoera larriagotu egiten da erabat, umeekin batera gerraren biktima nagusiak izateraino.

Emakumeek jasaten dituzten tratu txarrak ere ugaritu egiten dira, gizonek, euren burua mehatxatuta eta kolokan ikusita, kolpeka uxatzen baitituzte beldurrak eta frustrazioak, emakumea ahulagoa delakoan.

Gerra garaian, bizirik irautea da emakumeen helburu bakarra. Eguneroko lanak, hala nola, egurra biltzea, aleak xehatzea edo ur bila joatea, askoz ere nekezagoak eta arriskutsuagoak izaten dira, kontuan hartu behar baita etxetik urrundu eta erdi-ezkutuan ibili behar izaten dutela, inork ez ikusi eta ez erasotzeko.

Askoz ere osasun-arazo gehiago sortzen zaizkie, bai ugaltzeko ahalmenari lotutakoak (haurdunaldia, erditzea, edoskitzea...

# Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



# *Kolaborazioa*

oinarrizko osasun-laguntzarik gabe eraman behar izaten dituzte aurrera), bai euren kargura dituzten zahar eta haurrei lotutakoak. Askotan, familiakoak gosez edo bake-garaian saihesteko modukoak diren gaixotasunen ondorioz hiltzen ikusi behar izaten dituzte. Horregatik egiten dute ihes milaka emakumek: errefuxiatu eta deportatu gehienak emakumeak dira. Beste batzuk gogoz kontra ezkontzen dira, eurek eta seme-alabek bizirik jarraitu ahal izateko.

Gerretan egiten diren bortxaketak bereziki nabarmendu behar dira, bai kopurua bai duten esanahi bikoitza kontuan hartuta: soldaduen gerra-harrapakinak emakumeak izaten dira, eta konpartitu eta beste bandoko gizonak umiliatzeko erabiltzen dituzte, ustez haiena den zerbait lapurtuz. Bando bereko soldadu ausartentzat bidezko saria ere izaten dira emakumeak. Bortxaketak berez eragiten dituen minari eta umilazioari beste ondorio latz batzuk erantsi behar izaten zaizkio maiz: senarrek utzi egiten dituzte askotan edo, ezkongabeak badira, ez dute ezkontzeko aukerarik izaten eta are pobrezia gogorragoaren menpe geratzen dira.

Gerra ezin da askatzailea izan, inondik inora, gizakiak duen txarrena atera eta genero-zapalkuntzan ondoriorik gogorrenak eragiten ditu eta. Beraz, ozenki esan nahi dugu “ez euren izenean, ez geurean... gerrari ez”.

PILAR ETXANIZ (ZUTIK)
Antzuola

## Denok gara “Egunkaria’!

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Ikasleen Kontseiluak, adierazpen honen bitartez, *Euskaldunon Egunkaria*-ko langile, atxilotu eta kaltetu guztiei gure elkartasuna adierazi nahi die.

Euskara eta euskal kulturaren aurkako eraso berri honek biziki samindu gaitu, beste euskaltzale anitz bezala.

Berriz ere, euskalgintza susmopean jarri dute, euskara eta euskal kultura kutsatuz eta beronen hedapena oztopatuz. Euskaldunok dugun altxor preziatuenetariko bat kendu nahi izan digute, baina egoera latzagoetatik igaroak gara, eta honi ere aurre egingo diogu.

Euskal Herriaren aurkako ekintza honetan, atxilotuek jasandako tratu txarrak, adierazpen askatasunaren ukapena eta, azken finean, oinarrizko eskubideen urraketa bortitza salatu nahi ditugu.

Egoera larrienetan ere herri izaten jakin nahi dugu eta oraingoan ere jakingo dugu. Aurrera *Egunkaria*!

MU-KO GOI ESKOLA POLITEKNIKOKO IKASLEEN KONTSEILUA
Arrasate

Espainiako Kongresuan erabateko gehiengoa duela-eta, PP legeak onartzen ari da, apurka-apurka, etengabe: Hezkuntzaren Kalitate Legea, Izatezko Bikoteen Legea, Kode Penalaren Erreforma, Atzerritarren Legea… Alde batekoek eta bestekoek aurkako iritziak agertu dituzten arren –batez ere gurean–, popularrak aurrera ateratzen ari dira legeok. Debagoieneko herri eskolak batzen dituen Goieskola, beste hainbat erakunderen moduan, Hezkuntzaren Kalitate Legearen aurka agertu da. Hemen arrazoiak.

KALITATE LEGEA

# Kalitate Legea atzerapausoa dela uste dugu, lege horren diskurtsoaren kontrako balioak defendatzen ditugulako



RESU ABASOLO
Aretxabaletako Institutuko zuzendaria, Debagoieneko herri eskola guztien izenean

Goieskolak bere egin nahi duen aniztasunaren helburuari lagunduko ote dio Kalitate Legeak? Zalantzarik gabe, ezetz esaten dugu.

Kalitate Legeak eskola porrotaren erdigunean ikaslea jartzen du errudun bakar edo nagusitzat; ez du aztertzen hezkuntza sistemak ikasleari eskaintzen diona bidezkoa den edo ez. Kalitate Legeak jatorrizko desabantaila horiek konpentsatu beharrean bedeinkatu egiten ditu, ikasle horien arazo eskolarrak eta ondorengo bazterketa betiko finkatuz eta porrot sozialaren bidean jarriz. Gainera, bi mailako ikastetxeak finkatzen ditu: batzuek primerako ibilbideak eskainiko dituztenak, ikastetxe pribatuak; eta besteak baztertuentzako ibilbideak, ikastetxe publikoak.

Gure ustetan, berriz, eskolak ikasle horientzako babesleku eta gune eraginkorra izan behar du, non ikaslea onartua eta estimatua izango den, eta ez ustezko gabezia batzuen arabera diskriminatua.

Hezkuntza Ministroak dio gaurko hezkuntza sistemak ezjakintasunera kondenatzen duela belaunaldi osoa. Bere ustetan, derrigorrezko etapan ikasleen maila eskolarrak behera egiten du nabarmen derrigortasuna 16 urtera arte luzatuz. Ez omen du zentzurik ikasle guztiak ibilbide berean mantentzeak, askok ez diotelako denbora horri etekinik ateratzen. Baina, gure ustez, gaur egun ez da maila jaitsi, ezta eskola porrota areagotu, gertatu dena da derrigortasunaren luzapenak agerian utzi dituela sistemaren hutsune, kontraesan eta desberdintasunak.

Kalitate Legearen arabera, derrigortasunaren ondorio bat ikasle askoren motibazio falta eta diziplina eskasa izango lirateke eta, ondorioz, gela giroa okertzea. Arazo hauek gainditzeko, bi neurri jasotzen ditu legeak: ibilbide ezberdinen ezarpena eta zuzendariaren boterea indartzea.

*“Goieskolaren aniztasunaren helburuari ez dio lagunduko Kalitate Legeak”*

*“Eskola demokraziaren murrizketa, autoritarismoa… bultzatzen ditu”*

Ikasleen interesa berpizteko eta irakaskuntza ikasle bakoitzari egokitzeko argudioekin, Legeak ibilbide espezifikoak ezartzen ditu. Guk dioguna da ez dutela balio ikasle bakoitzak berak behar duena bermatzeko; eskolarki hobeto dabiltzanen mesederako egindako bideak direla, “arazoak” dituztenak alboratu egiten baitira, ez ditzaten besteen ahalmenak eta lorpenak oztopatu.

Ikasleei ibilbide aproposenak finkatzeko, maila igotzeko eta esfortzuaren kultura indartzeko kontrolak, azterketak, errepikapenak ezarriko zaizkie ikasleei. Baina, Legeak ez du ikasleak motibatzeko neurriez hitz egiten, ezta irakaskuntza pertsonalizatu baterako baldintzaz eta baliabideez.

Irakasleen ondoeza aitzakia bezala erabiltzen du Kalitate Legeak, ez baititu bere kausak aztertzen. Gizarte eredu bat ari da hiltzen, baina ordezkoaren izpiak oraindik ez digute bidea argitzen; bide erdian gaude, gure funtzioa birdefinitu, gure protagonismoa berreskuratu, talde lana indartu, ikasleekiko harremanak sakondu, gizarte aldakor honi erantzuteko behar dugun formazio irudikatu... Badugu zereginik, bai, ondoeza konformismoaren aurkako sintoma izan dadila, baina inork ez dezala erabili zaharkitutako hezkuntza ereduei zilegitasuna emateko, ez gure izenean.

Legearen argudioak (eskola porrota, maila eskolarraren jaitsiera, elkarbizitza, irakasleen ondoeza…) faltsuak dira. Erabiltzen duen diskurtsoa, berriz, hitz politez josita dago, baina hitz hutsak dira, eta hezkuntza eredu itxi, uniformatzaile, elitista bat mozorrotzeko erabiltzen ditu Legeak.

Beste alderdi batzuei erreparatuz ere Legeak ez dakar aurrerapausorik:

- Haur Hezkuntzari ematen dion tratamenduaren arabera, badirudi Lehen Hezkuntzarako prestaketa-etapa bezala ikusten duela Legeak, helburu propiorik ez balu bezala.

- Kalitate Legeak erlijio katolikoaren alde egiten du apustua disimulurik gabe, Estatua, konfesionala balitz bezala. Ez du beste erlijiorik onartzen eskolan eta aginte katolikoaren eskuetan uzten ditu erlijio katolikoaren ikasketak, eduki eta testu liburuen inongo kontrolik gabe.

- Legea zentralista da. Ez die Elkarte Autonomoko berezitasunei erreparatzen, are gehiago, ez dira kontsultatuak izan. Legearen egileek diote adostasun zabala dagoela bere onarpenaren inguruan; guk dakigunez eskola komunitatea ez da kontsultatua izan, eta entzun diren ahots gehienek Legearekiko desadostasun sakonak azaldu dituzte.

Goieskolak, beraz, Kalitate Legea atzerapausoa dela uste du, lege horren diskurtsoaren kontrako balioak defendatzen dituelako: eskola demokraziaren murrizketa, autoritarismoa, diskriminazioa, zentralismoa… Ondorioz, eskola integratzailea, konprentsiboa, anitza, eskola komunitatearen partaidetzaren aldekoa, eta demokratikoarekiko gure konpromisoa eta lana berresten ditugu gizartearen aurrean.

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Goio Arana (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martinez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martin, Imanol Elortza
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Julen Aranguren

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Aritza Monasterio gurean izan da

## Besaide mendi taldeak gonbidatuta berbaldia egin zuen Arrasaten

**Elorrion jaio zen arren, Elgoibarren bizi izan zen urtetan Aritza Monasterio. Ibarreko mendizaleen artean ezaguna da. Hori dela eta berbaldia egitera gonbidatu zuen Besaide mendi taldeak. Orain dela hamabi urte Perun bizi da, Limatik 400 kilometrora dagoen Huaraz hirian, Mendilerro Zuriaren magalean. Euskal Herrian dago oporretan, Himalaiara joan aurretik etxekoei jaioterria erakusten.**

**Urteak daramatzazu Perun bizi izaten. Zer moduz?**

Orain dela hamabi urte eskalatzera joan nintzen Perura lagunekin. Orduan ezagutu nuen gaur egun nire emaztea dena. Emaztea hangoa da, eta ezkondu ginenean, hara joan ginen bizi izatera. Ordutik hona han dihardut mendiko gidari lanetan. Mendiko gidari tituluduna naiz. Bizi naizen hiria, Huaraz, Mendilerro Zuriaren magalean dago. Han gidari lanak egitea da nire ogibidea.

**Orain dela bi urte Urrezko Euskal Pioleta eman zizun Euskal Mendizale Elkarteak. Zer sentitu zenuen?**



XABI URZELAI

Aritza Monasterio Arrasaten egon zen.

Pozgarria izan zen. Siula Handira mendebal aldetik egindako igoeragatik eman zidaten pioleta. Hasiera baten ez nuen espero sari hura jasotzea. Norberaren lana egitearren horrelako esker ona jasotzea oso pozgarria da. Gainera, esker on hori Euskal Mendizale Elkarteak egindakoa dela jakinda, poza handiagoa da.

**Baduzu harremanik Euskal Mendizale Elkartearekin?**

Antxon Bandres gaur egun elkarteko presidentea dena ez nuen ezagutzen. Pioleta eman eta gero gure arteko harremana sendotu egin da. Elgoibarkoa zelako, nik aurreko presidentea, Pako Iriondo, ezagutzen nuen. Eskalada garaian, maiatza eta iraila artean, zenbait espedizio antolatu izan ditugu elkarrekin Mendilerro Zurira.

**Euskal Herriko mendizaleak ezagunak zarete nazioarteko mendizaleendako.**

Euskal Herrian indartsu dago mendi zaletasuna. Jende ugari mugitzen du mendizaletasunak. Aurretik ondo egindako lanaren ondorioa dira euskal mendizaleok eta eskalatzaileok egindako igoerak. Lanak, ondo egiten denean, fruituak ematen ditu.

**Zein asmo dauzkazu etorkizunerako?**

Orain oporretan nago etxekoekin. Gero, martxo bukaeran, Himalaiara joango naiz Esloveniako espedizio batekin: Manaslura igotzeko asmoa dugu.

OXEL EROSTARBE

## *Kirolabur*

### TRIATLOIA/ARRASATE

Aurreko domekan, Euskal Duatloi Zirkuituko lehenengo proba jokatu zen Barakaldon, eta Zuhaitz Ezpeleta arrasatearrak irabazi zuen. Izan ere, Zuhaitzek lasterketa bikaina egin zuen.

Euskal Duatloi Zirkuitu horren barruan, datorren domekan Basauriko Duatloia jokatuko da eta martxoaren 22an, Oñatiko Duatloia.

### ESKUBALOIA /OÑATI

Hondarribiaren aurka 28-27 irabazi ostean, Aloña Mendiko eskubaloi taldeak lehenengo mailan jarraituko du bigarren urtez. Lan txukuna egin dute oñatiarrek. Bost jardunaldi falta dira eta laugarren daude sailkapenean. Gauzak horrela, mailari eusteko puntu bakarra falta zaie. Asteburuan Zumaian jokatuko dute oñatiarrek.

### PILOTA/ELGETA

Martxoaren 28an hasiko da Elgetako Lau t'erdiko Txapelketa. Aurten ere amateur eta kadete mailetako pilotari onenak izango dira nor baino nor gehiago; guztira, 261. Amateur mailan 167 pilotarik hartuko dute parte eta kadete mailan, 94k. Euskal Herriko pilota talde gehienetako pilotariek hartuko dute parte aurtengo txapelketan.

## GOIENKARIA SARIA

**Aste bukaerako emaitzak:** Hernani 0-Aretxabaleta 0 / Aloña Mendi 2-Bergara 1 / Ilintxa 0-Mondra 4

### ASTEKO JOKALARI ONENAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| **1.** | Jon Muruamendiaraz | (Mondra) | 3 puntu |
| **2.** | Iban Unanue | (Aloña) | 2 puntu |
| **3.** | Andoni Rodríguez | (Mondra) | 1 puntu |


1
**Jon Muruamendiaraz**
Mondra


2
**Iban Unanue**
Aloña


3
**Andoni Rodríguez**
Aretxabaleta

**Jon Muruamendiaraz**
Oraingoan 3 gol Jonek. Dagoeneko 25 gol Ligan!

**Iban Unanue**
Ondo baino hobeto ibili zen mahoneroen aurka.

**Andoni Rodríguez**
Hernaniren jokoa ederto oztopatu zuen bergararrak.

### SAILKAPEN OROKORRA

| | | | |
|---|---|---|---|
| **1.** | Jon Muruamendiaraz | (Mondra) | 13 puntu |
| **2.** | Gorka San Vicente | (Bergara) | 12 puntu |
| **3.** | Jon Altzola | (Bergara) | 9 puntu |
| **4.** | Eric García | (Aretxabaleta) | 9 puntu |
| **5.** | Iban Unanue | (Aloña) | 7 puntu |


1
**Jon Muruamendiaraz**
Mondra


2
**Gorka San Vicente**
Bergara


3
**Jon Altzola**
Bergara


4
**Eric García**
Aretxabaleta


5
**Iban Unanue**
Aloña

**Goienkaria**

ATZOKO TXAPELDUNAK

## Oihane Etxebarria

## Txirrindularitza



Oihane Etxebarria, lasterketa baten.

**Bizkaiko eta Euskadiko selekzioetan ibili zen.**

**Legazpiko lasterketa irabazi zuen.**

**Unai Etxebarria txirrindulariaren arreba da.**

Cafés Baqué taldean ekin zion Oihane Etxebarriak txirrindularitzari, 14 urterekin: "Hasiera baten, etxean ez zuten begi onez ikusi bizikleta hartzea. Unaik, anaiak, bizikletan ziharduen eta nik hamar urterekin edo hasi nahi nuen. Amak ez zidan uzten, neskendako arriskutsua zela esaten zidan. Azkenean bi lagunekin batera hasi nintzen".

Neska gutxik jarduten zuten txirrindularitzan: "Hemen gutxi ginenez, Espainian eta Portugalen izaten genituen lasterketak". Zaila izaten da txirrindularitzan lasterketak irabaztea. Oihanek lasterketa bakarra irabazi zuen: "Legazpiko lasterketa irabazi nuen, 16 bat urte izango nituen orduan. Pozgarria izan zen. Gainera, kadeteak izan arren, amateurrekin batera ibiltzen ginen. Horrek gehiago zailtzen zuen lasterketak irabaztea". Txirrindulari ezagunekin egin zuen topo tropelean: "Joane Somarriba eta Alicia Amesgarai, adibidez, gurekin ibiltzen ziren. Alicia onenetakoa zen orduan, lasterketa eta Euskadiko txapelketa guztiak kentzen zizkigun". Oroitzapenen artean badauka bat berezia dena: "Portugalen, lasterketa baten, tropela desegin eta tropeltxo bi egin ziren. Lehenengo tropela desbideratu egin zen eta, lasterketa irabazi ez nuen arren, lider jarri nintzen. Hainbat selekzio geunden: Suitzakoa, Errusiakoa, Lituaniakoa, Euskadikoa. Espainiarrak desbideratutakoen artean zeuden, eta alegazioa jarri zuten. Epaileek alegazioa onartu eta denoi denbora berba eman ziguten. Euskadiko Selekzioarekin urtero izan nintzen Estatuko txapelketetan eta Bizkaiko Selekzioarekin nazioarteko lasterketetan hartu nuen parte". /O.E.

***"Euskadiko eta Bizkaiko selekzioetan ibili nintzen, eta Estatuko txapelketetan eta nazioarteko lasterketetan hartu nuen parte"***



Oihane Etxebarria • Durango • 1976

# Udaberrirako prestatutako ikastaroak

## Debagoieneko Kirol Zerbitzuek eta Mondragon Unibertsitateak antolatuta

**Udaberrirako hainbat ikastaro antolatuko ditugu Debagoieneko Kirol Zerbitzuok eta Mondragon Unibertsitateak. Guztira, zortzi ikastaro jarriko ditugu abian. Hala, Debagoieneko kiroldegietan eta Mondragon Unibertsitatean eman dezakezue izena ikastaro horietan parte hartzeko asmoa duzuenok.**

Beheko taulan ikusten duzuenez, zortzi ikastaro gertatu ditugu udaberrirako: umeendako, unibertsitarioendako eta helduendako golfa; patinajea; dantza modernoa; estresaren prebentzio eta tratamenduaren gaineko lantegia; monitoreendako joera berriak, hala nola: *spinning* eta *power* modalitateak; esgrima; piraguismoa; eta ur sorosleen berriztapena.

Ikastaro bakoitza noiz emango duten beheko taulan daukazue azalduta. Baita ikastaroa non emango den, ordu kopurua eta prezioa ere.

Horrenbestez, udaberrirako prestatutako ikastaroetan parte hartzeko asmoa duzuenok Debagoieneko kiroldegietan eta Mondragon Unibertsitatean eman dezakezue izena.

| IKASTAROAK | DATAK | TOKIA | PREZIOA | ORDUAK | TITULUDUNA | HIZKUNTZA | ANTOLATZAILEA ETA INFORMAZIOA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Golf (haurrak) 8 urtetik gora | Martxoak 10etik aurrera | Oñati (Irelore golf zelaian) | | 10 ordu | Handicap (bai) | Gazteleraz/ Euskaraz | Irelore golf 943-718813 |
| Golf (Unibertsitarioak) 18 urtetik gora | | | | | | | |
| Golf (helduak): Hasiera Hobekuntza | | | | | | | |
| Golf (helduak): Handicap | | | | | | | |
| Golf (Jubilatuak) | | | | | | | |
| Patinajea | Maiatzak 12tik-ekainak 4ra. | Arrasate | 15 € | 10 | Ez | Euskaraz | Mondragon Unibertsit. |
| Dantza modernoa | Martxoaren 29tik aiatzaren 17ra | Aretxabaleta | 27 € - 24 € | 12 | | Euskaraz | Aretxabaletako kiroletxea |
| Stress-aren prebentzio eta tratamenduari buruzko tailerra Taller sobre prevención y tratamiento del stress. | Maiatza | Oñati | 100 €- 80 € | 24 | Ez | Gazteleraz | Bergarako kirol zerbitzuak Eta Oñatiko kiroldegia |
| Monitoreentzat. Joera berriak: spinning, powe | Maiatzak 10 | Oñati | 54 € – 45 € | 8 | Ez | Euskaraz | Oñatiko kiroldegia |
| Esgrima | Ekaina | Arrasate | 40 € - 32 € | 10 | Ez | Euskaraz | Mondragon Unibets. Gipuzkoako esgrima fed. |
| Piraguismoa | Maiatzak 5-8 | Albinako urtegian | 15 € | 7 | Ez | Euskaraz | Mondragon Unibertsit. |
| Ur sorosleen berriztapena | | Eskoriatza | | | | | Debagoieneko k.z. Eskoriatzako kiroldegia |

## KIROL ZERBITZUEN BERRIAK

| | |
|---|---|
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aretxabaleta | 943 71 26 28 |
| Arrasate | 943 77 16 77 |
| Bergara | 943 77 91 67 |
| Elgeta | 943 76 80 22 |
| Oñati | 943 71 63 75 |

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
kirol zerbitzua

LANERAKO PRESTAKUNTZAKO IKASTAROA

AUTOMOBILEKO MEKANIKARI LAGUNTZAILEAK

**Arrasateko Udaleko Enplegu Zerbitzua, INEMen dirulaguntzarekin, lanerako prestakuntzako ekintzen artean langabeei zuzendutako automobileko mekanikari laguntzaileak prestatzeko ikastaroa antolatzen ari da, ezaugarri hauekin:**

- **IKASTAROAREN HELBURUA**
  Automobileko mekanika arloan langabe talde bati prestakuntza ematea, lanposturen bat lortzen laguntzeko helburuarekin.
- **NORENDAKO**
  Langabeendako. Emakumezkoei lehentasuna emango zaie.
- **IKASLE KOPURUA**
  Taldea gehienez 15 ikaslek osatuko dute.
- **LEKUA:**
  Arrasate-Aretxabaleta Institutuan. Markole auzoa z/g (Aretxabaleta)
- **ORDU KOPURUA**
  234 orduko ikastaroa
- **ORDUTEGIA**
  Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 13:00etara.
- **NOIZ**
  Martxoaren 31tik ekainaren 30era arte.
- **IZENA EMATEKO EPEA**
  Martxoaren 25era arte, Arrasateko Udaleko Enplegu Zerbitzuan.
  Telefonoa: 943 79 09 00.

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

**Enplegu zerbitzua**







# publidenak.

**Zerbitzuaren kalitatea**






## Era guztietako publizitate-artikuluen fabrikazioa, markaketa eta banaketa.








Edozein kopuru. Epe laburrak.
Aurrekontuak konpromiso barik.
Erakusketa zabala.




- Enpresetara bisitak
- Enpresa-opariak
- Promozioak
- Publizitate-artikuluak
- Gabonetarako otarrak
- Artikulu pertsonalizatuak
- Diseinua. Arte grafikoak.
- Fotokopiak zuri-beltzean eta koloreetan.
- Estanpazioak kamisetetan eta txapeletan.
- Koadernatzeak eta plastifikatzeak.
- Trofeoak. Txapela bordatuak.
- Era guztietako errotuluak.
- Seinaleak, plaka ofizialak.
- Pankartak eta banderak.
- Laser bidezko markaketak, serigrafia, transferrak, termograbaketak eta bordatuak





**HELBIDE BERRIA:**
ARRASATE PASEALEKUA 8
ARRASATE

TEL.: 943 77 06 09 (4 linea) FAXA: 943 71 23 77
www.publidenak.com
POSTA-E: publidenak@euskalnet.net

Goienka2a
Egubakoitza / 2003ko martxoaren 14a
Kultura eta aisialdia
Martxoaren 7tik 14ra



# Izan edo ez izan

**AMERIKETAKO ESTATU BATUETAN, ALEMANIAN, ESPAINIAN, FRANTZIAN, ERRESUMA BATUAN... EZAGUNAK ETA PREZIATUAK DIRA TOLOSAKO BABARRUNAK, ETA ORAIN, GIPUZKOAKO URRE GORRIZKO JAKI HORI DEBAGOIENEAN ERE EKOITZ DAITEKE. ZELAN, BA?**

Babarrun gorriak Euskal Herriko gastronomiako harribitxietariko bat dira. Eta hori ez dugu geuk bakarrik esaten, ez; azken urteotan merkatu horrek jasan izan duen intrusismoa horren eredu garbi da. Izan ere, merkatutik pasatu diren babarrun gorri gehienak Gipuzkoako edo Tolosako babarrun bezala saldu izan diren arren, horietatik gehienak kanpotik sartutakoak ziren: Nafarroatik, Errioxatik, Gaztela eta Leondik… baita Euskal Herriko eta Estatuko beste leku batzuetatik ere. Tolosako babarrun gorri gozoen izena horrenbeste hedatu da eta hain da preziatua merkatu hori, ezen elkarte bat sortu behar izan zen orain dela ia hamar urte, 'Tolosako babarrunak' izena marka erregistratu bihurtzeko.

Eta horrela da gaur egun: Tolosako babarrunak ez dira edozein babarrun, baizik eta Tolosako Babarruna elkarteko kideek hazitakoak soilki. Baina bitxiena da, Tolosako babarrunak ekoizteko ez dela beharrezkoa baserria Tolosan izatea; izan ere, Debagoienean ere ekoitz daitezke Tolosako babarrunak. Horixe bera proposatzera etorri dira orain dela gutxi Tolosako Babarruna Elkarteko hainbat ordezkari Debagoienera. Ibarreko Mendi Nekazaritza Elkartearekin bilerak egin dituzte, ibarreko baserritarrak eurek aukeratutako haziarekin gero merkaturatzeko babarrunak haztera animatzera. Elkarteak mentalitate aldaketa bat proposatzen du: gaur egun norberaren kontsumorako ekoizten den babarruna, komertzializatzeko moduan ekoiztea.

> "Eskaerak gora egin du; ekoizle gehiago behar dira"
>
> TOLOSAKO BABARRUNAK ELKARTEA

Kontua da Tolosako Babarruna Elkarteak Gipuzkoa osoko 50 bat ekoizle biltzen dituela, baina gehiagoren premian dagoela. Eurek dioten moduan: "Produktu honen soroko lanak berarekin dakarren esku-lana eta nekea direla medio, azken urte hauetan bertako produkzioak behera egin du, kontsumitzailearen eskaerak gora egin duen bitartean". Horri aurre egiteko, honakoa erabaki zuen elkarteak: "Babarrun produktoreak biltzea erabaki genuen; ereindako babarrun soroen kopurua gehitu eta produktore berriak bilatuz. Hori guztia lortzeko, babarruna aletu, bereizi, izoztu eta enbasatzeko makinak erosi ditu elkarteak, lehen eskuz egiten ziren lanak orain makinek egin ditzaten". Sofistikazioa ez da hor amaitu: "Soroko lanen inguruan ere ikerketa plan bat egin dugu, neke gutxiagorekin etekin handiago lortze aldera, hazi egokiak erabiliz, sistema berriak ezarriz…", gaineratzen du.

Proposamen hori jakin arazi zieten joan den astean Debagoieneko baserritarrei. Elkartearekin bat egiten duten edo ez, baserritar bakoitzak erabaki beharko du; hori bai, ibarreko Mendi Nekazaritza Elkarteak beso zabalik jaso du Tolosako elkartearen ekimena, eta debagoiendarrei informazio eta laguntza osoa ematea agindu du. Euren lasaitasunerako, baserritarrek honako bermea izango dute: Tolosako Babarruna elkarteak produkzio osoa erosten dietela kideei.

Hori izan liteke Gipuzkoako ikur-produktu bat babesteko modu egokiena. Merezi du: babarrun gorriak oso ezagunak dira mundu osoan. Lehen 'txiroen' jaki bezala hartzen zena, orain goi mailako platera da. /LEIRE KORTABARRIA

GOIO ARANA

NEKAZARITZA/ IBARREKO BABARRUN EKOIZLEENDAKO KANPAINA

# Debagoieneko babarrun gorriak

TOLOSAKO BABARRUNA MARKAREN JABE DEN ELKARTEA EKOIZLE BERRI DABIL DEBAGOIENEKO BASERRITARREN ARTEAN

LEIRE KORTABARRIA

**Euskal Herrian ekoizten diren janari eta edari askok ospe handia irabazi dute urteotan, ez bakarrik geurean, baita gure mugez beste aldean ere, eta ia-ia ikur bihurtu dira. Hori da Tolosako babarrunen kasua. Baina, marka horrekin, Debagoieneko babarrunak ere sal daitezke.**

"Tolosako babarrunak" izena entzuteak nahasmena sor dezake jendearengan. Baina izen hori ezin daiteke edozelan erabili. Izan ere, Tolosako babarrunak marka bat da, izen homologatua, eta izen horrekin babarrunak sal ditzaketen bakarrak Tolosako Babarruna Elkarteko kideak dira.

Izen hori oso preziatua da, babarrun gorriok duten ospearengatik. Tolosako Babarruna elkartea Gipuzkoan hain errotua dagoen produktu hori defendatzeko sortu zen, 1994an: "Tolosako babarrunek izen handia dute, eta Nafarroako, Errioxako, Argentinako... babarrunak izen hori erabilita hasi ziren merkaturatzen. Horietatik bereizteko sortu genuen elkartea", dio Arantxa Ariztimuño arduradunak.



TOLOSAKO BABARRUNA ELKARTEA

**Tolosako Babarruna elkarteak babarrunak aletzeko makina bereziak erabiltzen ditu.**

### DEBAGOIENEAN ERE BAI

Tolosako babarrunen marka erabili ahal izateko baldintza da elkarteko kide izatea eta haiek emandako hazia erabiltzea. Hori dela-eta, oso posible da Debagoieneko baserritarrek hazitako babarrunak Tolosako babarrun bezala saltzea. Eta nekazari debagoiendarrak horretara animatzera etorri ziren, hain zuzen ere, joan den astean Tolosako Babarruna Elkarteko ordezkariak.

Elkartekoek hainbat bilera egin dituzte Debagoieneko Mendi Nekazaritza Elkartearekin. Tolosakoek diotenez, arazoa honakoa da: "Babarrunok izen handia eta merkatu ona dute; baina Tolosako ekoizpena oso txikia da, eta ekoizle gehiago behar ditugu". Euren iritziz, Debagoieneko ekonomia egoerak eragin handia du: "Industria da sektore indartsuena, eta baserrian lan egiteko eta etekina ateratzeko gertu jende gutxi dago".

### PROPOSAMEN INTERESGARRIA

Debagoieneko Mendi Nekazaritza Elkarteko presidente Mari Karmen Iturbe bat dator horrekin: "Ibarrean, hamabost bat ekoizle daude, eta gehienek, saltzekotan, euren betiko bezeroei saltzen diete. Beste ekoizpen mota batez berbetan ari gara -merkaturako ekoizpena, hain zuzen ere". Iturbek gaineratzen du proposamen interesgarria izan daitekeela debagoiendarrondako: "Edozein ekintza egitea erabakitzen badugu, Tolosako Babarruna Elkartearen bidez izango da".

## Jarrera aldaketa

**Debagoieneko Mendi Nekazaritza Elkarteak begi onez ikusten du Tolosako Babarruna Elkartearen jarduera. Izan ere, izenak Tolosa bakarrik aipatzen duen arren, ibarrekook ere bertakotzat jotzen dute produktu hori: "Elkartearen helburua txalogarria dela deritzot, hau da, bertako babarrunak izanda, geuk garatu beharreko produktua da, eta geuk atera behar diogu etekina", dio Mari Karmen Iturbe Debagoieneko Mendi Nekazaritza Elkarteko presidenteak.**

**Debagoieneko baserritarren batek tolosarren proposamenarekin bat egitea erabakitzen badu, ikusiko du Tolosako Babarruna Elkarteak azken xehetasunera arte zaintzen duela ekoizpen prozesua. Lehen mentalitate aldaketa izango da, etxerako ekoiztu ordez, merkatu zabal baterako ekoiztea, eta beharbada horrek ematen du lan gehien. Mari Karmen Iturbek dioen bezala: "Debagoiendarrek etxerako hazten dituzte babarrunak, eta soberan dagoena bakarrik saltzen dute. Orain, ordea, ehun bat kiloko ekoizpenaz berbetan gabiltza".**

**Soroko lanak betiko modukoak izango dira. Aldaketa babarrunak jaso ondoren dator. Arantxa Ariztimuñok azaltzen digun moduan: "Baserritarrak jasotako haziak ekartzen dizkigu pabilioietara, oraindik ere, lekan. Guk ekoizpen guztia hartzen diogu. Handik aurrera, makinek aletu egiten dituzte lekak, eta babarrunak tamainaren eta motaren arabera sailkatzen dira. Prozesuaren bukaeran, pisatu egiten dira, hori guztia baserritarraren aurrean".**

**Horren ondoren, babarrunak izozkailu indartsu batean gordetzen dituzte 48 orduz, higienea ziurtatzeko, eta epe hori pasatakoan dator azken fasea: zorrotan sartzea. Kilo erdiko, kiloko eta hiru kilotako zorrotan saltzen dira babarrunok.**

**MARI KARMEN IRADI** / ELKARTEKO PRESIDENTEA

## *"Baserrirako alternatiba izan daiteke"*

**Tolosako Babarruna Elkarteak geurean kideak aurkitzeko kanpaina jarri du abian. Elkarteko presidentearekin egin dugu berba.**

**Zein da Debagoieneko baserritarrei egin diezuen proposamenaren muina?**

Guk nahi dugu babarruna baserri ekonomiako alternatiba izan dadin. Debagoienean eta Goierrin dago babarrun ekoizle gutxien, eta baserritarrak animatu nahi ditugu. Esan nahi diegu ekoizten duten guztia hartuko eta merkaturatuko diegula.

**Zein baldintza bete beharko dituzte horretarako?**

Elkarteak emandako babarrun hazia erein beharko dute. 120 bat haziren artean, bi aukeratu genituen, eta horiek dira Tolosako babarrunak egiteko haziak.

**Eta, aldiz, zein berme eskaintzen dizkie Elkarteak?**

Osasun eta kalitate kontrol zorrotzak ditugu; adibidez, hazia -20 gradutan gordetzen dugu, zomorroak saihesteko. Bestalde, Tolosako babarrunek euskal produktuen labela daramate. Jatorri izendapena eskaintzen dugu.



**Mari Karmen Iradi.**

**ERAKUSKETAK/ PEGATINA, DOKUMENTU HISTORIKO PAREGABEA**

# Historiaren lekuko bitxiak

## 'LA PEGATINA: DOCUMENTO HISTÓRICO' ERAKUSKETAK, OÑATIN, 3.000 PEGATINA INGURU BATZEN DITU

LEIRE KORTABARRIA

**Euskal Herriko historiako kapitulurik interesgarrienetariko bat izan dira Franco hil eta ondorengokoak. Izan ere, urte haietan, giza eta politika arloak bizi-bizi zeuden. Atal horren ikuspuntu original bat eskaintzen digu *La pegatina: documento histórico* erakusketak, Oñatin.**

Atzo, eguena, inauguratu zen *La pegatina: documento histórico* erakusketa Oñatiko kultura etxean, Santa Marina plazan. Hilaren 24ra arte izango dugu pegatinok eskaintzen diguten historiaren gaineko ikuspegia hobeto ezagutzeko aukera.

Izan ere, erakusketa osatzen duten pegatinek Euskal Herriko eta Espainiako historiako atal iskanbilatsu baten testigantza jasotzen dute: hain zuzen ere, Franco hil zenetik gaur egunera arte. Denetariko mugimendu sozial, kultural eta politikoak eman ziren urte horietan, eta horien berri ematen dute pegatinok, modu umoretsu, garratz, kritiko edo serioan. Euskal alderdi politikoen pegatinak; abortuaren aurkakoak; NATOaren alde edo aurkakoak; Lemoizko zentralaren ingurukoak… ikus daitezke, besteak beste.




LEIRE KORTABARRIA

**Politika, gizarte gaiak, Euskal Herriko hainbat herritako mugimenduak… daude islatuta pegatina erakusketa honetan.**

### 40.000 PEGATINA

Fernando Iñigo Aristu gasteiztarrak antolatu du erakusketa. 1975ean hasi zuen bilduma, 15 urte zituela, eta hasierako zaletasuna pasio bilakatu zen denborarekin. Gaur egun, Fernando Iñigok 40.000 pegatina inguru ditu; Oñatin, 3.000 daude ikusgai. Horietatik zaharrena 1945ekoa da, baina 1936an *bineta* bezala ezagutzen zirenak ere badauzka; balio postalik gabeko zigiluak ziren, CNT eta UGTrenak, baina baita talde frankistenak ere.

Bestalde, Fernando Iñigok badu besteak baino bitxiagoak diren pegatinak ere: "Alderdi komunistak Aberri Egunean parte hartu zuenekoa; *El Mundo*-koen iritziz, *ETA EZ* leloarekin GALek Iparraldean banatutakoa…", azaltzen digu.

### NAZIEI IDATZIZ ESKATUTA

Aristuk denetarik egin izan du pegatina berriak bildumari gehitzeko: "Agerraldi eta mitinetara joanda lortu ditut asko, behin baino gehiagotan, poliziaren kolperen bat jasotzeko arriskuarekin. Gerora, batzokietan, Herrikoetan, Madrilgo Goya kalean edo Orienteko plazako salmenta puntuetan, talde naziei idatziz eskatuta…", esaten digu.

Gasteiztarrak onartzen digu "kilometro asko" egin behar izan dituela, "eta diru pixka bat inbertitu ere bai". Gaur egun ere urtero 700 pegatina berri eskuratzen dituela esaten digu.

**NIRE AUKERA**




## 'ONNA'
## Sorkun

**Sorkunek bakarlari moduan atera duen lehenengo diskoa, *Onna* izenekoa, oso gustuko dut. Kashbad taldearekin zegoenean ere gustuko nuen. Izan ere, neure iritziz, Euskal Herriko emakumezko ahots berezi eta pertsonalenetariko baten jabe da Sorkun. Bestalde, Euskal Herriko emakumezko musikarien artean nabarmendu egiten da, bere estilo rockeroarengatik, eta egiten duena lotsa barik egiten duelako. Disko honek atsegin ditudan hainbat elementu ditu, baina bat azpimarratuko banu, Sorkunen ahotsa bera aukeratuko nuke, musika tresnen –gitarra, baxua…– erabileraren gainetik.** /L.K.



**Ines Osinaga**

Arrasatearra. Ekon taldeko ahotsetako bat. Hirugarren diskoa kaleratu zuten iaz.

**KALERATU BERRIAK/ Iban Arantzabal**

**LIBURUA /** Euskalkia




**BERBETA BERUA**

**Alberto Telleria**
Badihardugu
61 orrialde

Deba ibarreko udal gehienek lagundu dute liburu honetan. Udalak ere euskalkiarekin arduratuta dauden seinale. Atzetik, hala ere, Badihardugu taldea dago, Deba ibar osoko euskaltzaleak batzen dituen taldea. Liburu hau elkarri adarra jotzeko berbaz osatutakoa da, tabernan gaudenean erabiltzeko modukoa, haserretutakoan edo pozik gaudenean adierazkorra dena.

Tradiziotik hartutako berbak eta asmatuak ere aurkituko dituzu. Asmatuak ere, Euskal Herrian, dirudienez, inoiz ez da-eta homosexualik egon, emakumea ez da-eta sekula masturbatu, eta abar.

**DISKOA /** Popa




**HESI ARTEAN**

**Aitor Gorosabel**
UEU
Kantu bakarra

Kantu bakarra, UEUren *www.ueu.org* gunean lor dezakezuna. Ez da edozein kantu, propio CD honetarako egindakoa da.

Udako Euskal Unibertsitateak 30 urte bete ditu, eta ibilbide luze horretan, jarduera ugari antolatu eta aurrera atera dituela ospatzeko modu bat da kantu hau argitara ematea. *Hesi artean* Aitor Gorosabel Su ta Gar taldeko abeslariak egin du, mezu argi batekin: Euskal Unibertsitatea beharrezkoa da eta berau sortzeko mugak guztion artean gainditu behar ditugu. UEUren lagun guztiei eskainitako abestia.

**DISKOA /** Popa




**GAUA IRISTEN DEN MOMENTUAN**

**Ambulance**
Oihuka
10 kanta

Konplexu barik egindako diskoa da. Ingalaterrako poparen usainaren ondora dator, 70eko eta 80ko hamarkadetan egiten zen antzera, non baxuaren indarrak eusten zion poparen hauskortasunari, sendo eta trinko. Melodia kutsakorrez betetako diskoa, behin eta berriro errepikatzen diren melodiez. Melodia hauek egiteko hainbat baliabide erabili dituzte; esaterako, bateria akustikoa eta erritmo kutxa gehi programazioak. Denak uztartuta, hamar kantu osatu dituzte.

Ambulance talde berria da eta, hala, baita kantuak ere.

# Martxoak 14–21

**Leire Kortabarria** / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## MUSIKA

### ARRASATE

► **Gasteizko kultura elkarte andaluziarrak** antolatutako Saeta Lehiaketaren barne, emanaldia izango da Al-Andalus elkartearen egoitzan, bihar, zapatua, 23:00etan.

► **Bihar Berriz** taldearen kontzertua izango da datorren egubakoitzean, hilak 21, Amaia Udal Antzokian, iluntzean. Topagunearen Kultur Errota egitasmoaren barneko ekintza da.

### BERGARA

► **Raw power, Zinc, Cementerio show eta Cojoba** taldeen kontzertua izango da gaur, egubakoitza, Jam aretoan, 21:00etan.

► **Chris Liebing, Tube Jerk eta beste disko jartzaile batzuen** emanaldia izango da bihar, zapatua, Jam aretoan, 00:00etan.

### ELORRIO

► **Anari eta Mari ta la muerte** kantarien emanaldia izango da gaur, egubakoitza, Arriola aretoan, 22:30ean.

► **Santanderko Ataulfo Argenta Kontserbatorioko** Ume Orkestrak kontzertua eskainiko du etzi, domeka, Arriola aretoan, 17:00etan.

► **Audience taldeak** kontzertua eskainiko du datorren egubakoitzean, hilak 21, Arriola aretoan, 22:30ean.

### OÑATI

► **Pernice Brothers (AEB) eta Desde el atico (Donostia)** taldeen kontzertua izango da gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 22:30ean.

► **Kokein (Eibar)** taldearen emanaldia izango da datorren egubakoitzean, hilak 21, gaztelekuan, 22:30ean.

## DEIAK

### ARRASATE

► **Herriko odol emaile guztiek** hitzordu berri bat izango dute hilaren 18tik 20ra bitartean. Odola emateko, jo anbulatoriora, 16:15etik 20:00etara bitartean.

► **Zuhaitz Eguna** izango da hilaren 18an, martitzena, eta 200 pago landatuko dituzte Garagartzan. 10:30ean elkartuko dira.

► **Ekin Emakumeak** elkarteak batzar orokorra egingo du hilaren 20an, eguena, euren egoitzan, 18:30ean.

► **Literatura solasaldien barne,** Luisa Etxenike idazle donostiarra etorriko da hilaren 20an, eguena, *El mal más grave* bere liburuaren gainean berba egitera. Herritar guztiak daude parte hartzera gonbidatuta. Monterron kultura etxean izango da, 18:30ean.

### DEBAGOIENA

► **Ibarreko Euskal Presoak Euskal Herrira taldeak** egindako zozketan 0834 zenbakia saritu dute. Saria Karibera bidaia da. Irabazleak dei dezala 677 38 82 47 telefonora.

### ELORRIO

► **Ume errusiarrak hartzeko** familien bila dabil Kainabera elkartasun taldea. Interesa duzuenok, deitu 656 74 85 06 telefonora (Isa).

### ESKORIATZA

► **Literatura eta erotismoa** gaiaren gaineko azken ekintza izango da gaur, egubakoitza, HUHEZIn. *Hitzak biluzten* saioa egingo dute ikasleek, 11:30ean.

► **Eskiatzera joateko irteera** antolatu du Udaleko Gazteria Sailak, apirilaren 5erako eta 6rako, 12 eta 30 urte bitarteko gazteendako. Izena emateko azken eguna martxoaren 21a izango duzue. Horretarako, jo kultura etxera, 10:00etatik 13:00etara edo 14:00etatik 17:00etara.

### EUSKAL HERRIA

► ***Euskaldunon Egunkaria*-ri** laguntzeko kontu korrontea dago zabalik: 3035 0092 56 0920055559 duzue zenbakia.

► **Donostiako sagardotegi baten** afaria antolatu du Euskal Herriko Gay Askapenerako Mugimenduak (EHGAM) martxoaren 22rako, zapatua. Izena emateko azken eguna gaur da, egubakoitza; hortaz, interesa duzuenok, deitu lehenbailehen 667 43 55 70 telefonora.

### OÑATI

► **Hileko odol ateratzea** izango da gaur, egubakoitza, Txantxiku Ikastolako areto nagusian (San Juan kalea 1), 18:00etatik 20:00etara.

► **Sagardotegi batera irteera** antolatu du Laixanek biharko, zapatua. Eguerdian abiatu eta iluntzerako itzuliko dira. Irteera posta bulegoaren parean izango da, 12:00etan.

► **Mendi Astea** antolatu du Aloña Mendi elkarteak martxoaren 17tik 21era bitartean. Egunero proiekzio bana eskainiko dute Santa Ana aretoan, 19:30ean. Gaiak honakoak izango dira: oihan tropikala; Cho Oyu mendia; Amerikako hiru handiak; Indiako hegoaldea mendiko bizikletaz; eta zazpi bidaia Atlasean barrena. Aldi berean, egun horietan Xabier Garretak Atlasera egindako bidaien gaineko erakusketa egongo da ikusgai Santa Ana aretoan, 19:00etatik 21:00etara.

► ***Heziketa afektibo-sexuala* izenburuko hitzaldia** egingo du Silvia Ubillos adituak datorren eguenean, martxoaren 20an, Txantxiku Ikastolako aretoan, 18:30ean.

## LEHIAKETAK

### ARAMAIO

► **Aramaioko San Martin jaietako**



ARRASATE ORTOPEDIA
Maalako Errabala 8
Tel.: 943 77 20 78
Osakidetzarekin eta Lagun Arorekin hitzartua

Oinaren tratamendua ordenagailu bidez
**Pedikura ortopedikoa eta oin-osatzea**

**Oinaren azterketak:** tendinitisak, gerrialdeko minak, min zerbikalak eta bizkarreko minak antzemateko.
**Umeak:** hainbatean behin egiten diren azterketa konparatiboak, umeari egin zaion zuzentzearen jarraipena egiteko.
**Materia bigunen erabilera:** oin erreumatikoendako, diabetikoendako eta neurologikoendako.
**CAD/CAM sistema:** Plantillen fabrikazioan (berehala ematen dira).
**Neurrira eginiko oinetakoak.**
**AEBetatik inportatua.**

Bizi kalitate hobea • Guztia ordenagailuz kontrolatua

POZIK IBILI GURA BADUZU, HANKAK PUNTUAN JAR ITZAZU
Oinetakoen garrantzia




Orkoi zuzena — Puntakoa biribildua — Pala altua

ERIZAINTZAKO DIPLOMADUNA

ERIZAINTZAKO DIPLOMADUN bat kontratatu nahi da aldi baterako eta jardun erdiz Iturbide Egoitzarako.

**Baldintzak:**
- Erizaintzako diplomaduna edo Osasun Laguntzaile Teknikoa.
- Euskara jakitea, 3. HEren parekoa.

Interesdunak martxoaren 21ean aurkeztu behar dira goizeko 10:00etan Udaletxean.

**Oinarriak**: Udaletxean eta web orrian jaso daitezke: arrasate-mondragon.org

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Pertsonal saila



► IKUSKIZUNAK

## LAU ANTZEZLAN, ILUSIONISMO SAIOA ETA TELEBISTA PARODIA

Programazio mardula antolatu du Arrasateko Iamai kafetegiak hemendik eta apirilaren 25era bitartean. Egubakoitzero izango da zer ikusi eta zerekin barre egin kafetegian, 00:00etan, doan. Gaur, egubakoitza, izango da lehen saioa: Gasteizko Kuku Bazar taldeak *Tapin Tapon* umore garratzeko antzezlana eskainiko du; datorren egubakoitzean, Detritus Teatrus taldeak *Las punkis también lloran* lana eskainiko du; eta martxoaren 28an, *100 años de perdón* antzerki-kafe saioa izango da. Apiriletik aurrera, Madrilgo Torpedovel taldea, Jon Zabal ilusionista eta Sobradun taldea izango dira Iamain. Gainera, Iamaik antzezle ez profesionalen lehiaketa deitu du; interesatuok, bidali curriculuma Kontzezino kaleko 14ra.

**Non:** Arrasateko Iamai kafetegian (Kontzezino 14). **Noiz:** martxoaren 14tik aurrera, egubakoitzero. **Ordua:** 00:00etan.



## EUSKAL HERRIKO MUSIKA ETA TRESNAK

Euskal Herriko musika eta soinu-tresnak gai hartuta, kontzertu didaktikoa eskainiko du Juan Mari Beltranek gaur, egubakoitza, Eskoriatzako kultura etxean, 19:00etan, Axtroki elkarteak antolatuta. Adin guztietako publikoari zuzendutako ekintza da.

kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du Udalak. Interesa duen edozeinek har dezake parte; hori bai, A-3 edo A-2 formatuan edo euskarri informatikoan aurkeztu beharko dira lanak. Kartelean derrigorrez agertu beharreko testua honakoa da: *San Martinak 2003 Aramaio - Uztailak 4, 5, 6 eta 7.* Maiatzaren 30a baino lehen bidali behar dira lanok Aramaioko udaletxera. Lehen saria 180 eurokoa izango da; bigarrena, 100 eurokoa.

### BERGARA

► **Bergarako Mendekoste jaietako** kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du udalak. Edozeinek har dezake parte, 61 x 46 zentimetroko kartelak aurkeztuz. Derrigorrezko testua honakoa izango da: *Pentekoste jaiak Bergaran. 2003.* Martxoaren 28a izango da parte hartzeko azken eguna. Bidali lanok Bergarako kultura etxera.

### DEBAGOIENA

► **Gerran desagertutakoak gogoratzeko monolitoa** egingo dute, eta horrendako leloa aukeratzeko lehiaketa deitu du desagertuen senideen taldeak.

## ERAKUSKETAK

### ARRASATE

► **Fernando Biderbost** margolari bilbotarraren hainbat margolan izango dira ikusgai Maalako Errabaleko Arregi markoztatze dendan, martxoaren 28ra arte.

## ANTZERKIA

### ARRASATE

► ***Bahía Naufragio* ikuskizuna** izango da etzi, domeka, Olarte kaleko Jai-Zale tabernan, 21:00etan. Musika lasaia, olerki basatiak eta margolanak uztartuko ditu ikuskizun horrek.

### ESKORIATZA

► ***Pako Fakirra* umeendako ipuin kontaketa saioa** egingo dute Ixabel Agirresarobek eta Iñaki Agirrezabalek martitzenean, hilaren 18an, liburutegian, 18:00etan.

## IKASTAROAK

### ARRASATE

► **Euskal dantza ikastaroa** antolatu du Gazteria Sailak, herriko Lore Gazteak dantza taldearekin elkarlanean. San Juan jaietara arte iraungo du, egubakoitzero, 19:00etatik 20:30era. Bederatzi euro ordaindu beharko dituzte parte hartzaileek. Argibideetarako, jo Udaleko Gazteria Sailera.

# Zinema

### ARRASATE

■ **ALAI ZINEMA**

***The good girl***
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena eta martitzena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ikuslearen eguna.

■ **AMAIA ANTZOKIA**

***La pizarra***
Eguena, zine kluba: 21:30.

### BERGARA

■ **NOVEDADES**

***Los lunes al sol***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30.
Astelehena, ikuslearen eguna.

***The good girl***
Eguena, zine kluba: 20:00.

### OÑATI

■ **OÑATIKO ZINEA**

***Solaris***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

***Pastel magikoa***
Zapatua eta domeka: 17:00.

***Indiako hegoa mendi bizikletan***
Eguena, zine kluba: 20:00.

### EIBAR

■ **UNZAGA**

***A propósito de Schmidt***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

■ **RIALTO**

***Daredevil***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

### GASTEIZ

■ **GURIDI**

***Mortadelo y Filemón***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***Ocho millas***
Egubakoitza: 17:30, 22:30.
Zapatua: 17:00, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 22:30.

***Hable con ella***
Egubakoitza eta domeka: 20:00.
Zapatua: 20:00, 01:00.

***Daredevil***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***Amor con preaviso***
Egunero: 17:30, 22:30.

***Chicago***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:00, 20:00, 22:30, 01:00.

***El pianista***
Egunero: 18:00, 22:00.

***La vida de nadie***
Egubakoitza: 20:00.
Zapatua eta domeka: 19:45.

***El americano impasible***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

■ **MIKELDI ZINEMAK**

***Atrápame si puedes***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***Este cuerpo no es el mío***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***Mortadelo y Filemón***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***Las horas***
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 20:00, 22:45.

***Narc***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***Lejos del cielo***
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 20:00, 22:45.

***Amor con preaviso***
Egunero: 17:15, 20:00.

***La sonrisa de mi madre***
Egubakoitzetik domekara: 22:45.

***Daredevil***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***El pianista***
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 20:00, 22:45.
Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

***Las hermanas de la Magdalena***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30.

***El jardín de la alegría***
